

ZUZENBIDE ERROMATARREKO PRAKTIKAK

JAIONE ARIETA-ARAUNABEÑA

BLANCA GAMBOA

SARRERA

Erabaki genuenean lan hau egitea gure helburua ikasleen lana erraztea baino ez zen izan.

Zuzenbide Erromatarra irakasgaiko eskola betidanik bi zati egin dugu: alde teorikoa eta alde praktikoa, ikasleak gaurkotzeko edo egokitzeko hobeto esanda ikasi dituen kontzeptu teorikoak praktikara eramateko, edota beste era batera esanda bizitza arruntean dauzkan erreflexuak ikusteko.

Lan honen bidez saiatzen ari gara ikasleak ekartzen XII Tauletan zegoen Zuzenbidetik gaur dagoen Zuzenbidera, loturak eta desberdintasunak ikus ditzaten eta, horretarako materialak hainbat testutatik hartu behar izan ditugu, batzuetan osoki eta beste batzuetan nahasita, baina beti guretzat garrantzitsuak diren ideiak, kontzeptuak eta sortzen diren egoera juridikoak, ikasleek hobeto ikas ditzaten.

Are gehiago, ikus daitekeenez, aurkezten ditugun egoera batzuk, nahiz eta *Digestotik* hartuak izan, ikasleek gaurko egunean ere ikus ditzakete, 15 mende geroago egoera berdinak gerta daitezkeela eta gure etxetik ez urrun. Gehienetan ere soluzio bera dute.

Horrela, lan honekin batera bibliografia bat aurkezten dugu, interesa daukaten ikasleek erabil dezaten eta, geuk aurkezten dugun materiala osatzeko. Esan beharrean gaude kasu batzuk emandako bibliografiatik hartuta daudela (García Garrido J., Miquel J., Ortega Carrillo de Albornoz eta abar...)

Espero dugu material hau geure ikasleentzat interesgarria izatea eta, lehenengo mailako irakasgaia denez, animatzea gure inguruko arauetan jardutera hurrengo ikasmailetan.

Leioan, 2007ko, martxoaren 29an

Blanca Gamboa eta Jaione Arieta-araunabeña

AURKIBIDEA

Orrialdea

<i>Per formulam</i> prozeduran agertzen diren formula batzuk	5
<i>Condictio</i> formula	5
<i>Actio venditi</i> formula	6
<i>Vindicatio rei</i> formula	7
<i>Actio depositi in factum</i> formula	8
<i>Actio depositi in ius</i> formula	8
<i>Actio pro socio</i> formula	8
<i>Actio empti</i> formula	9
<i>Actio furti nec manifesti</i> formula	9
<i>Actio legis aquiliae</i> formula	9
<i>Actio quod metus causa</i> formula	10
Bete itzazu hutsuneak	11
Pertsonak-1	12
Pertsona – 2	13
Pertsona-3	14
Pertsona-4	15
Dotean emandako gozamina	16
<i>Causa Curiana</i>	18
Ahizpaordeek...	20
Oinordetzako ondasunen banaketa	22
Seme emantzipatuaren oinordetza	27
Antonio Silvanoren testamentua	30
Kaio Longino Kastorren testamentua	31
Kodizilo Diptikoak	32
Gauzak	33
Luzioren eraztuna	34
Tizioren mandoa	36
Erleak	39
Zortasunak	40
Gozamina	43
Hipoteka-subrogazioko negozioa	45
Betebeharrak edo eginbeharrak	48
Ardi lapurtuen eroslea	50

<i>Stipulatio</i> eta mailegu-dokumentua	53	
<i>Tizioren kodexa</i>		57
Agertzen ez den emakume saltzailea		58

Beste baten fundoaren salmenta	61
Dirua maileguan hartu zuen ikaslea	64
Fundo bat erosteko seme bati emandako mandatua	67
Gordailututako kopurua eta interesak	71
Bizagina eta pilota-jokalariak	75
Kapitolion geratutako gurdi-talka	79
Ostalariaren argiontzia	81
Idien elkar partekatua	83
Bi aldiz ebatsitako andre jopea	85
Zorra ordaintzea eskuordetzearen bidez	88
Fidantza	91
Beste batzuk	96
Bibliografia	113

***PER FORMULAM* PROZEDURAN AGERTZEN DIREN FORMULA BATZUK**

***CONDICTIO* FORMULA**

EPAILEAREN IZENDAPENA.- Octavius iudex esto

Oktavio izan dadila epailea.

INTENTIO - Si paret Nm Nm Ao Ao HS X milia dare oportere.

Numerio Negidiok 10.000 sestertzio Aulo Ageriori eman beharko balizkio.

EXCEPTIO PACTI.- Si inter Am Am et Nm Nm non convenit ne ea pecunia intra annum peteretur.

Ez balitz egon itunik dirua urtebete pasatu arte eskatzeko.

REPLICATIO DOLI - Aut si quid dolo malo Ni Ni factum est.

Edo N. Negidiok zerbait doloz egin balu

CONDEMNATIO - Iudex Nm Nm Ao Ao HS X milia condemnato, si non paret absolvito.

Zuk zeuk, epaile horrek, Numerio Negidio

kondena ezazu 10.000 sextertzio ordaintzera Aulio

Ageriori, eta hala ez balitz izan, absolbi

ezazu.

ACTIO VENDITI FORMULA

IZENDAPENA.- Oktavio izan dadila epailea.

DEMONSTRATIO - Quod As As (vendedor) No No (comprador)fundum
Cornelianum, quo de agitur, venditit.

Aulo Augeriok eskatzen den fundo kornelianoa

Numerio Negidiori **saldu zionez gero.**

INTENTIO - Quidquid paret ob eam rem Nm Nm dare facere
oportet ex fide bona.

Fede onez, Numerio Negidiok kausa

horrexegatik egin edo eman behar duen guztia.

CONDEMNATIO - Eius, iudex, Nm Nm Ao Aocondemnato, si non paret
absolvito.

Zuk zeuk, epaile horrek kondena ezazu Numerio

Negidio Aulo Augerioaren alde, eta hala ez balitz

izan absolbi ezazu.

"VINDICATIO REI" AREN FORMULA

IZENDAPENA.- Octavius iudex esto

Oktavio izan dadila epailea

"INTENTIO" .- Si paret fundum Cornelianum, quo de agitur, ex iure Quiritium Ai Ai esse.

Eskatzen den fundo kornelianoa Zuzenbide kiritarraren indarrez Aulio Augerioresna izango balitz.

"CLAUSULA ARBITRARIA".- Neque is fundus Ao Ao restituetur.

Eta esandako fundoa Aulo Ageriori ez balitzaio itzuli.

"CONDEMNATIO" .- Quanti is fundus erit, tantam pecuniam iudex Nm Nm Ao Ao condemnato, si non paret absolvito.

Zuk zeuk, epaile horrek, Numerio Negidio

kondena ezazu Aulo Ageriori gauzak (epaiaren unean) balio

duen beste diru ordaintzera

eta ez hala balitz absolbi ezazu.

ACTIO DEPOSITI IN FACTUM FORMULA

Aulio Augeriok Numerio Negidioren menpean zilarrezko mahai bat gordailuan utzi bazuen, eta horrek doluz ez bazion itzuli Aulo Augeriori, zuk zeuk, epaile horrek, kondena ezazu Numerio Negidio Aulo Augeriori gauzak balio duen beste diru ordaintzera, eta hala ez bada, absolbi ezazu.

ACTIO DEPOSITI IN IUS FORMULA

Aulio Augeriok eskatzen den zilarrezko mahaia Numerio Negidioren menpean utzi zuenez gero, **kausa horrexegatik Numerio Negidiok fede onez eman edo egin behar duen guztia** zuk zeuk, epaile horrek, kondena ezazu Numerio Negidio Aulo Augerioren alde, eta hala ez balitz, absolbi ezazu.

ACTIO PRO SOCIO FORMULA

Aulo Augeriok Numerio Negidiorekin ondasun guztietan, auzigai diren horietan, sozietatean elkartu zen, eta horregatik guztiagatik batak besteari, fede onez eman edo hartu behar dion guztia, behintzat Numerio Negidiok egin dezakeenari dagokionez zuk zeuk, epaile horrek, kondena ezazu Numerio Negidio...

ACTIO EMPTI FORMULA

Aulo Augeriok Numedio Negidiori eztabaidagai den esklaboa, Estiko, fede onez erosi zionez gero, kausa horregatik Numedio Negidiok Aulo Augeriori egin edo eman behar dion guzti horretara kondena ezazu...

ACTIO FURTI NEC MANIFESTI FORMULA

Aulo Augeriori urrezko kopa ebatsi balio , Numerio Negidiok edo hark aholkatu balu, eta kausa horregatik Numerio Negidiok kalte-ordaina eman behar balio, zuk zeuk, epaile horrek kondena ezazu Numerio Negidio ebasketa gertatu zenean gauzak balio zuenaren bikoitza Aulo Augeriori ordaintzera eta hala ez balitz absolbi ezazu

ACTIO LEGIS AQUILIAE FORMULA

Numerio Negidiok auzigai den esklaboa bidegabeki hil balu Numerio Negidiok esklaboak urte horretan izandako balio handiena ordaindu behar dio Aulo Augeriori. Zuk zeuk, epaile horrek, kondena ezazu Numerio Negidio Aulo Augeriori aipatutako kantitatearen bikoitza ordaintzera, eta hala ez balitz, absolbi ezazu.

ACTIO QUOD METUS CAUSA FORMULA

Aulo Augeriok eztabaidagai den fundo korneliarra larderiaz Numerio Negidiori emantzipatu balio, eta ez balitz pasatu urtebete larderia erabili zuenetik, epailearen arbitrioren bitartez ez bazaio fundoa eman, kondena ezazu laukoitza ordaintzera ...

BETE ITZAZU HUTSUNEAK, (OSATU FORMULAK)

..... .- Tizio izan dadila epailea

..... .- Eskatzen den Estiko esklaboa Zuzenbide Kiritarraren arabera Aulo Augerioresna balitz

..... .- Eta zure bitartekotzaren arabera ez balitzaio itzuli

..... .- Zuk zeuk, epaile horrek, Numerio Negidio kondena ezazu Aulo Augeriori gauzak balio duen beste ordaintzera, eta hala ez balitz absolbi ezazu

BETE ITZAZU HUTSUNEAK (OSATU FORMULAK)

..... .- Tizio izan dadila epailea

..... .- Aulo Augeriok Estiko esklaboa urtebetean eduki balu eta, eta traditioaren bidez eskualdatu balitzaio, ius civilerako jabea litzateke

..... .- Zure bitartekotzaren arabera ez balitzaio itzuli

..... .- Zuk zeuk epaile horrek, Numerio Negidio kondena ezazu Aulo Augeriori Estiko esklaboak balio duen beste diru ordaintzera, eta hala ezbalitz izan absolbi ezazu

PERTSONA-1

Kaio erromatarra gaztea zenean bere aita Senproniok emantzipatu zuen, jeneral erromatar ospe handikoa izan zen.

Kaio Capuako emakume batekin, Meviarekin, zegoen ezkondata, Mevia familia dirudunekoa zen eta lursail baten eta Estiko izeneko esklabo baten jabea zen. Esklabo horrek manumisioa jaso zuen jabearen *manumissio vindicta* baten bidez.

Senar-emazteek alaba bat izan zuten, Silvia, gurasoen etxean bizi zena.

Galiarrek Kaio jenerala preso hartu zuten borroka batean.

Bost urte pasatu eta gero, zaintzaileek izan zuten hutsaldi batean, ihes egin eta Erromara itzuli zen.

Hura preso egon zen bitartean, haren emazte Mevia, senarra hilda zelakoan, Paulino gizon dirudunarekin ezkondu zen, eta ezkontza horretatik bi seme-alabak jaio ziren, Marko eta Kandido.

GALDERAK

- 1.- Kaio jeneralaren egoera juridikoa.
- 2.- Emazte Meviaren egoera juridikoa.
- 3.- Estikoren egoera juridikoa.
- 4.- Bien alabaren egoera juridikoa.
- 5.- Kaio jenerala bahitu izanak izandako ondorio juridikoak.
- 6.- Meviaren bigarren ezkontza? Horren seme-alaben egoera juridikoa?

PERTSONA -2

Senpronio (erromatarra eta *sui iuris*), Asian luzaroan egon eta gero Erromara itzuli zen, eta Tiziarekin (*sui iuris* eta erromatarra bera) *sine manu* ezkondu zen. Ezkontza horretatik Marko eta Silvia jaio ziren eta Tizia haurdun zegoen berriz.

Senpronio gerrara doa eta sukarrek jota hiltzen da. Hamar hilabete pasatu eta gero Tiziak hirukiak ditu: bi mutil eta neska bat.

Lehen mutila hilda jaio zen; bigarren mutila amarengandik banatu eta gero, zaratarik egin ez eta mugimenduak baino egiten ez zituenez gero emaginak betikoa eragin zion, txaloak eman zizkion; zoritxarrez, umea labaindu zen eta burmuinean kalte larriak izan zituen. Ordu batzuk pasatu eta gero hil zen.

Neskatxoak gogor oihu egin zuen, eta nahiz eta osagileek visitas luzca iragarri hiru egun pasatu eta gero hil zen.

GALDERAK

- 1.- Senpronioaren egoera juridikoa.
- 2.- Tiziaren egoera juridikoa.
- 3.- Seme-alaben, Markoren eta Silviaren egoera juridikoa.
- 4.- *Nasciturusa*.
- 5.- Jaio diren seme-alabak pertsonak dira ? Betebeharrak.
- 6.- Nahiz eta asko bizi ez izan ondorio juridikoak izan dira ? Aztertu kasu guztiak.
- 7.- Hirukiak seme-alaba legitimotzat har daitezke ?
- 8.- Hilda jaio den umeak ondorio juridikorik al du amarentzat?

PERTSONA - 3

Gaizkile batzuek Estiko esklaboa ebatsi zuten, eta geroago, Germanian preso hartu zuten esklaboa. Germaniarrek gerra galdu zutenean, Estiko esklaboa Erromara itzuli zen eta lapurrek Kaiori saldu zioten esklaboa, eta hark fede onez erosi ez baitzekien esklaboa ebatsia zela. Azkenean esklaboaren lehengo jabeak auzitara eraman zuen Kaio esklaboa eskatzeko.

D.49,15,27 Javoleno, 9 post. Lab.

GALDERAK

- 1.- Esan zer egoera juridikotan egon den Estiko esklaboaren hasierako garaian, germaniarren esku egon zenean eta Erromara itzuli denean.
- 2.- Esan zer egoera juridikotan dagoen esklaboaren lehengo jabea, eta zer defentsa-tresna dituen.
- 3.- Azaldu Kaioren egoera juridikoa. Erosi eta gero esklaboaren jabetza eskuratzen du? Zein da haren egoera? Zer defentsa dauka?
- 4.- Azaldu lapurren egoera juridikoa.

PERTSONA-4

Juliok, ihes egindako esklaboak pretoretza eskatu zuen Erroman, eta, horrela, pretore izan zen eta lan hori egin zuen. Esklabotza ezkutatuta, esklabo batek pretore izan al daiteke? Haren ediktuak edo dekretuak baliogabeko al dira? Edo baliodunak izango al dira haren boterearen mendean egon zirenentzat, arauak edo beste zuzenbide batean oinarrituz haien onurako izan diren erabakiak? Jabeak beretzat eska al dezake esklabo gisa?

D.1,14,3 Ulpiano, 38 Sab.

- 1.- Ihes egindako esklaboak esklabo izaten jarraitzen du? Norena litzateke?
- 2.- Pretore izan daiteke? Haren egintzak baliodunak dira: ediktuak, emandako actioak, enbargoak eta abar?. Pretore zenean egin zituen egintza juridikoak baliodunak dira?
- 3.- Irabazirik izan bazuen pretore izan zen bitartean, norenak dira etekin horiek?
- 4.- Jabeak beretzat eska dezake esklabo gisa?

DOTEAN EMANDAKO GOZAMENA

Kaio, *paterfamilias* eta hiritar erromatarra, eta Seia, hildako patrizio garrantzitsu baten eta beraren lagun minaren alaba, puberrak zirelarik, nahita ezkondu egin ziren. Geroago, Seiak Kaiori gutun bat bidali zion, dibortzioa jakinarazteko, eta Tiziorekin ezkondu zen. Halaber, *coemptioa* ospatu zuten. Beste alde batetik, Seiak Tiziori fundo senpronianoaren gozamena eman zion dotean: Tiziok jabetza soila baitzeukan eta Seiak gozamena. (D. 23,5,7; D.24,3,57)

1.- Lehenengo ezkontzari dagokionez:

- a.- Ez da balioduna, *conventio in manuma* ospatu ez zutelako.
- b.- Biak puberrak dira, *conubium* daukate, eta ezkontza-harreman finkoa ezarri zutenez gero, *iustum matrimonium* bat da.
- c.- Ez da ezkontza balioduna ezarritako formalitateak *flamen dialis* eta pontifize handiaren aurrean egin ez zirelako.
- d.- Ezkontza legitimoa da Kaio *paterfamilias* delako.

2.- Seiaren eta Tizioaren arteko ezkontzari dagokionez:

- a.- Bigamia-kasu bat da.
- b.- Balioduna da, garai klasikoan *affectio maritalis* amaitzen denean ezkontza ere amaitzen delako.
- c.- Ez da balioduna, dibortzioaren formalitateak errespetatu ez direlako.
- d.- Ezkontza legitimoa da, *coemptio*a ospatu da eta.

3.- Ezaugarri hauen artean, zein ez dagokio gozamenari?

- a.- *iura in re aliena* da
- b.- Eskubide erreala izanda, pertsona zehatz baten eskubidea da.
- c.- Garai bateko eskubidea da.
- d.- Fundoen gaineko eskubideak baino ez dira.

4.- Seiak gozamina galtzen du dotean ematean?

- a.- Bai, Tziok dotearen titularitatea dauka eta.
- b.- Ez, fundoaren fruituak ezkontzaren zamari aurre egiteko erabiltzen dira eta.
- c.- Ez, senarrak dotea itzultzeko beharra dauka eta.
- d.- Ez, senarrak dotearen gainean daukan jabetza formala da eta.

5.- Tizio fundoaren gozamendun bihurtzen da?

- a.- Ez, gozamina *iura in re aliena* da eta.
- b.- Bai, nahiz eta fruituak ezkontzaren zamakri aurre egiteko izan.
- c.- Bai, *dotis datio*agatik.
- d.- Bai, nahiz eta ezkontzaren amaieran itzultzeko beharra izan.

6.- Senproniok Mevio, Tizioaren eta Seiaren *in potestate* seme legitimoa, adoptatu nahi du...

- a.- Ezin du adoptatu, *patria potestas*a iraungitzen ez delako.

- b.- **Arrogatio** negozio juridiko solemnearen bidez egin dezake.
- c.- Tizio hil arte ezin du adoptatu.
- d.- Ticioekin ados jarrita salerosketa hirukoitza egin eta gero **in iure cessio**ren bidez egin daiteke.

CAUSA CURIANA

Marko Koponio testamentugileak, bere emaztea haurdun zegoelakoan, jaiotzeko behar zen semea izendatu zuen oinordeko, eta bere heriotzatik hamar hilabete pasatu baino lehen jaiotzen bazen. Oinordekoa pubertarora heldu baino lehenago hilez gero, testamentugileak xedatzen du Manlio Kurio beraren ordezkotzat izatea. Testamentugilea hiltzen da, eta, itxaroten zuen semea ez da jaiotzen. Manlio Kuriok oinordetza nahi du eta uko egiten diote Marko Koponioren ahaide agnatuek, testamenturik gabeko oinordetzarako eskubidea izan arren. (D.28,6,4; D.29,2,30,1; KZ. art. 29; KZ. art. 30; KZ. art. 750; KZ. art. 959)

1.- Postumoak (hil ondokoak) honako hauek ziren:

- a.- Testamentugilearen pentsamenduan argi eta garbi bereizirik ez zeuden pertsonak.
- b.- Lehenengo unean oinordekoak izan ezin ziren pertsona juridikoak.
- c.- Testamentua egiterakoan jaioak ez direnak.
- d.- Bigarren graduako ondorengoak, zeinak *sui* bihurtzen baitira erdian dagoen beren aurreko *suusa* hiltzean.

2.- Zuzenbide Klasikoan ba al du baliorik hil ondoko seme bat oinordeko izendatzeak?

- a.- Ez, pertsona zehaztugabeak direlako, eta seguru ezin jakin daitekeelako jaioko den ala ez.
- b.- Ez, baina geroago jaiotzen bada, *postumi sui* baten preterizioaren (ahaztearen) aurrean egongo ginateke, eta testamentua deuseza izango litzateke.
- c.- *Postumi Propii* guztiak jaraunsgabetzeko (desheredatzeko) edo oinordeko izendatzeko aukera onartu zen, nahiz eta erreforma ez zen ezarri bat-batean baizik eta gradualki.
- d.- Ez du axolarik, kasu horietan beti testamenturik gabeko jaraunspena zabaltzen zelako.

3.- Testamentugilearen aldetik aurreikuspenenik al dago?

- a.- Oinordeko bat izendatzen du bere ondorengotza jaraunsteko, beraadimena berreskuratu gabe hiltzen bada. (ordezkapen *kuasipupilarra*).
- b.- Semearen ordezkari bat izendatzen du pubertarora heldu baino lehenago - eta, ondorioz, testamentua egiteko gaitasunik gabe – hil daitekeela aurreikusiz (ordezpen *pupilarra*).
- c.- Agintzen dio hirugarren bati oinordetzari helburu zehatz bat eman diezaiola.
- d.- Testamentugileak agintzen du berriz eman dakiola oinordetzaren parte bat pertsona bati.

4.- Espero zen semea ez bazen jaio, testamentuan jasota zegoen ordezpena (Manlio Kurio) arruntzat har zitekeen semeak ezin zuelako jarauntsi?

- a.- Ez dago ordezpen *pupilarrerako* erarik, hil ondoko semea ez baita jaio, testamentua hitzez hitz interpretatu behar da eta; testamentugileak nahi izan balu ordezpen arrunta izatea hauxe esango zuen: "semea ez balitz oinordeko izango..".
- b.- Aita batek kasu baterako seme inpuberraren ordezkaria izendatzen duenean, kasu horretarako baino ez dela onartzen da, eta testamenturik gabeko oinordetza

zabalduko da.

c.-Ordezpen arrunta pupilarraren barnean dagoela onartzen da. Testamentugilearen nahia hartu behar da kontuan eta ez erabilitako hitzak, eta argi dago testamentugileak nahi izan duela Manlio Kurio oinordeko izatea, lehenik izendatutako semea oinordeko ezin izatekotan.

d.- Kasu honetan, ordezkoa oinordetzaren erdian testamentuzko oinordeko litzateke eta ahaide agnatuak testamenturik gabekoaren bidez beste erdian.

5.- Nori dagokio oinordetza (jaraunspena)?

- a.- Fiskoari, bakante (jaberik gabe) geratuko litzateke eta.
- b.- Testamentugilearen ahaide agnatuei.
- c.- Manlio Kurio ordezkoari.
- d.-Emazteari.

6.-Zer *actio* erabil dezake onuradunak?

- a.-*Actio ex testamentua*, legatu bat dagoelako.
- b.-*Hereditatis petitioa*, oinordetzako ondasunak zituenari eskatzeko.
- c.-*Interdictum quorum bonorum*, pretoreari ondasunen edukitza eskatzeko.
- d.-*Actio ad supplemam legitimama*, legeak ezartzen duen oinordetzako kuota betetzeko.

**AHIZPAORDEEK TIZIAREN ONDASUNEN JARAUNSPENAREN
EDUKITZA ESKATZEN DUTE.**

Tizia testamenturik gabe hil zen; bizi zituen ahizpa Septizia, bere aitaren alaba bat eta Lukrezia ama, beste senar baten haurraren zain zegoena. Lukreziak, haurdun zegoenak, oinordetzari uko egin zion eta gero Senpronia izeneko alaba izan zuen.

- .-Tizia.- Testamenturik egin gabe hiltzen da.
- .-Lukrezia.- Haurdun dago, haurra ez da Tiziaren aitarena.
- .- Septizia.- Tizia kausatzailearen ahizpaordea.
- .- Senpronia.- Tiziaren ahizpaordea, hura hil eta gero jaioa.

GALDERAK:

1.- Zuzenbide Erromatarrean, oinordeko izateko gai honako hauek ziren:

- a.- *Peregriniak*, esklaboak, eta *filius familiaeak*,
- b.- Esklaboak eta *filius familiaeak*.
- c.- Gizon libre, erromatar eta *paterfamiliasak*.
- d.- Gizon libre, erromatar eta *paterfamiliasak* eta emakume libre, erromatarra eta *sui iurisak*.

2.- Oinordeko osoa izateko beharrezko betebeharrak honako hauek dira:

- a.- Beharrezko gaitasuna edo *testamenti factio pasiboa*, *ius capiendia*, eta *indignitas* eza.
- b.- Testamentuzko oinordetza edo testamenturik gabeko oinordetza izatea.
- c.- Beste edozein negozio juridikotarako galdatzen direnak.
- d.- *Ius capiendia* eta *indignitas* eza.

3.- Kasu horretan, zer gertatzen da ahizpaordeekin?

- a.- *Hereditasa* edo testamenturik gabeko zuzenbidearen nagusitasun juridikoa eskatzen dute, *ius civilerako* oinordekoak direlako, eta horregatik *actio reivindicatorioak* babesten du jabetza hori.
- b.- Pertsona horiek jaraunspena eskuratzen dute automatikoki edo *ipso iure*, beharrezko oinordekoak dira eta.
- c.- Oinordetzako ondarearen testamenturik gabeko edukitza eskatzen diote pretoreari, *actio publicianak* babesturik.
- d.- Hildako ahizparen testamentuko xedapenak betetzeko eskatzen dute, eta baita oinordetzari uko egin zion ama ordezkatzeko ere.

4.- Honako elementu hauen artean, zein ez da egoten *bonorum possessio*an?

a.-Oinordeko beharrezkoak eta oinordeko *extranei*ak bereizten dira, eta horregatik lehenengoek *ipso iure* eskuratzen dute.

b.- Ordezkariaren bidez lor daiteke.

c.- *Bonorum possessio*ak epe bat dauka eskatua izateko, 100 egunekoa oro har, pertsona batzuentzat luza daitekeen arren.

d.-Testamenturik gabeko *bonorum possessio*a mailaka ematen zen. Izan ere bigarren graduan edo atzeragoko graduetan deituek eska zezaketen lehentasunez deituak izan zirenek ez bazuten eskatzen, eta ez zen gelditzen banatu gabe.

5.- Nola eska dezakete ahizpaordeek testamenturik gabeko *bonorum possessio*a?

a.- *Hereditatis petitio*a erabiliz.

b.- *Interdictum quorum bonorum*a erabiliz.

c.- *Interdictum quod legatorum*a erabiliz.

d.-*Actio ex testamentum*a erabiliz.

6.- Nor litzateke Tiziaren oinordekoa?

a.- Nahitaez, Tiziaren ama.

b.- Septizia baino ez.Tizia hiltzen denean bizi den bakarra, pretoreak lehendabizi seme-alabak eta jaraunsle legitimoak deitzen dituelako eta gero kognatuak (odolezko ahaideak).

c.- Bi ahizpaordeak lirateke, erdi bana jasota, nahiz eta Senpronia Tizia hil eta gero jaio une hartan sortua baitzegoen eta beraz oinordetzaren ondorioetarako jaio balitz moduan hartzen.

d.- Oinordetza eman gabe gelditzen da, ahizpetako bat ere ez baita odolezko lotura bikoitzeko.

OINORDETZAKO ONDASUNEN BANAKETA

Kaiorekin zorretan zegoen Seio. Azken hori hil egin zenean Tizio izan zen oinordekoa. Hark hartzekodun batzuk zituen eta ez zeukan kaudimenik. Hala, Seioren ondasunak saldu ziren. Seioren hartzekodunek esaten dute beraren ondasunak nahiko direla beren kredituak ordaintzeko eta Tizioen hartzekodunek Tizioen ondasunekin konformatu behar dutela, eta, ondorioz, ondasunen salmenta egin behar dela bi pertsona desberdinak izango balira bezala, gerta daitekeelako Seiok kaudimena izatea eta bere hartzekodunei zor guztiak ordaindu ahal izatea, eta ezin badira ordaindu zor guztiak, bai, behintzat, parteren bat, baina Tizioen hartzekodunak bereizkuntzarikik gabe onartuak badira, haiek gutxiago lortuko dutela oinordekoak kaudimenik ez duelako edo gutxiago lortuko dutela horrela eginez gero, hartzekodun gehiago direlako.

D.42.6.1.1 eta 2;

1.- *Heredes sui et necesariiek*, honela eskuratzen dute jaraunspena:

a.- Onartu egin eta gero, *cretioaren* bidez, hots, esanbidezko adierazpen solemnearen bidez.

b.- *Ipsa iure*, edo automatikoki, deialdiarekin batera, bai testamentua eginda bai testamenturik egiteke, onartu behar izanik gabe.

c.- *Pro herede gestioaren* bidez, hots, jaraunspenaren oinordeko gisa egindako gestioaren bidez.

d.- Automatikoki edo *ipsa iure*, jaraunspena kaltegarria ez bada, hots, ez badauka kreditu baino zor gehiago.

2.- *Heredes extraneiek* honela eskuratzen dute jaraunspena:

a.- Beren borondateak aintzat hartu gabe, eta ondorioz ezin diote uko ere egin.

b.- Borondatezko adierazpen berezi baten bidez, *aditio hereditatisaren* bidez, eta ondorioz eskaintzen zaien jaraunspena libreki onar dezakete edo hari uko egin.

c.- *Ipsa iure* edo automatikoki, onartu behar izanik gabe.

d.- Testamentua alde zuzenetik onartuz eta testamenturik gabekoa bada automatikoki.

3.- Oinordetza kaltegarria ("*hereditas dannosa*") da honako kasu hauetan:

a.- Aktiboa pasiboa edo zorrak baino handiagoa denean.

b.- Oinordetza zibilaren eta *bonorum possessioaren* artean auzia egonez gero, heres zibilak lehentasuna daukanean ondasunen edukitzailearen aurrean.

c.- Jaraunspenaren pasiboa edo zorrak aktiboa baino handiagoak direnean.

d.- *Bonorum possessorrak*, jaraunspen zibila eta bonorum possessioaren artean auzia egotekotan, lehentasuna daukanean oinordeko (jaraunsele) zibilaren aurrean.

4.- Jaraunspen kaltegarriaren kasuetan:

- a.- Oinordetza kredituei dagokie, eta ez zorrei.
- b.- Ez dago jaraunspenik, oinordekoak ez luke ezer hartuko eta.
- c.- Jaraunspena egon badago, oinordetzako ondareari, bai aktiboari bai pasiboari baitagokio (horixe da oinordetzaren ondorio garrantzitsuenetako bat).
- d.- Oinordetza zorrei baino ez dagokie, familia erromatarrean zorrak eskualdatzen ez baitziren, betebeharren izaera pertsonalagatik erromatarren artean.

5.- Ondasunen *nahasmena (confusio bonorum)*:

- a.- Oinordekoaren ondarean eta jaraunspenean dauden ondasunak banatzeko era bat baino ez da.
- b.- Hilaren hartzekodunen defentsa-tresna bat da, jaraunsearen balizko kaudimenik eza aldentzeko.
- c.- Esaera bat da. Horrek adierazten du oinordetzan hilaren ondarea osorik pasatzen zaiola oinordeko edo jaraunseari, eta berarenarekin nahasten dela, baita ondare barruan dauden eskubide etabetebeharrak, salbuespen batzuk izan ezik.
- d.- Izaera pertsonaleko berme mota bat da, *stipulatio* sortua, zeinak oinordekoak hilaren betebeharrak betetzea bermatzen baitu.

6.- Honako hau da bi ondareak, oinordekoarena eta kausatzailearena nahastearen ondorio garrantzitsu bat::

- a.- Ez direla iraungitzen oinordekoaren eta hilaren arteko harreman juridikoak.
- b.- Oinordekoaren eta hilaren arteko harremanak iraungitzen dira. Horregatik, betebeharra iraungitzen da bata edo bestea elkarren hartzekodun edo zordun zirenean.
- d.-Nahastearen ondorioz, oinordekoaren fundoaren eta hilaren fundoaren artean dagoen zorra baino ez da iraungitzen.
- d.- Nahastearen ondorioz iraungitzen da gozamenaren eskubide erreala, jabetza soilak oinordekoari baitagokio.

7.- Honako honengatik nahasten dira ondareak:

- a.- Testamentu bidez deitzeagatik, nahiz eta izendatuak oinordetza ez onartu.
- b.- Testamenturik gabe deitzeagatik.
- c.- Jaraunspena eskuratzeagatik eta, ondorioz, oinordekoak ez badu eskuratzen jaraunspena ez dira nahasten ondareak.
- d.- Testamentuaren kontra dagoen edo beharrezko den oinordetzagatik.

8.- "*ULTRA VIRES HEREDITATIS*" erantzunbeharrak honako hau esan nahi du:

- a.- Jaraunspeneko ondasunak eta harreman juridikoak oinordekoari

eskualdatzen zaizkiola hila titularra zenean zeuden moduan.

b.- Oinordekoak jaraunspeneko betebeharrei erantzuten die nahiz eta jaraunspenaren aktiboa nahiko ez izan.

c.- *Paterfamiliasa* hiltzean, familiaren aurrean oinordeko batek (*heresak*) edo gurtzetan jarraitzaile batek ordeztu behar zuen, eta baita, ondareari buruzko eta perstonrteko harremanetan ere.

d.- Antzineko jaraunspenean, erlijioa edo gurtza garrantzitsuagoak ziren, ondarea bera baino.

9.- Nahastearen beste ondorio bat honako hau da:

a.- Nahikoa da oinordetzako gauzak edo objektuak edukitzea, fede onik gabe eta titulu zuzenik gabe urtebetean usukapioa jaraunspen osora hedatzeko.

b.- Militarren testamenturako araudi berezia ezartzen da, testamentua nahi duten moduan eta ahal duten moduan egin dezaketelako eta testamentugilearen nahia baino ez da beharrezkoa beraren ondasunak banatzeko.

c.- Hilaren hartzekodunak batu egiten ziren oinordekoaren hartzekodunekin zorrak kobratzeko ondare bakar batetik.

d.- Hilaren hartzekodunek ez badituzte kobratzen kredituak hura bizi den bitartean haren heriotzarekin batera iraungitzen dira eta oinordekoa ez da erantzule.

10.- Hilaren ondarea oinordekoari emateak zekartzan arazoak konpontzeko, oinordekoaren, hilak zor eta hartzekodun asko baitzeuzkan, eta hilaren hartzekodunen interesak babesteko, eta oinordetzako ondasunak lortzearen haien artean izan zitekeen borroka ekiditzeko, pretoreak honako hau sortu zuen:

a.- *Satisfatio suspecti heredis*: magistratuak oinordekoari eginarazten zion promesa *decuiusaren* hartzekodunek eskatuta. Fidatzaile batzuk egon behar zuten. Horrela promesa zela bide kredituen ordainketa bermatzen zitzaien.

b.- *Separatio bonorum*: oinordekoaren ondarearen barnean dauden ondasunen banaketa, jaraunspenean daudenetik. Hilaren hartzekodunek pretoreari eskatzen diote, kredituak kobratu ahal izateko hila bizirik egonez gero egingo luketen moduan.

c.- Eskuratu eta gero, ondare bakarra baino ez dago, eta oinordekoaren hartzekodunek kobratu ondoren, geratzen dena kobratuko dute hilaren hartzekodunek, lehentasuna dute eta.

d.- Ondare bakarra baino ez dagoenez, hartzekodunek daukaten eskubide bakarra da kredituen dataren arabera kobratzea, eta ondorioz, zaharrenek lehenago kobratzen dute.

11.- Pretoreak aintzat hartzen ez badu hilaren hartzekodunen eskaera, (eskatu eta lortu dute ondasunen banaketa):

a.- Ez dauka ondorio praktikorik, hilaren eta oinordekoaren hartzekodunen kredituak epemugaren dataren arabera ordaintzen dira eta.

- b.-Hilaren eta oinordekoaren hartzekodunei nori bere aldetik ordaintzen zaie.
- c.- Lehendabizi ordaindu behar dira oinordekoarentzat premiazkoenak diren kredituak, hilarengandik edo norberarengandik etorrira ere.
- d.- Oinordekoak bakarrik sal ditzake ondasunak, pobrea bada jakina.

12.- Nork eska dezakete *SEPARATIO BONORUMA*?

- a.- Oinordekoaren hartzekodun guztiek.(D.42.6.1.2)
- b.- Hilaren oinordeko guztiek, solidarioki.
- c.- Oinordekoak baino ez.
- d.- Hilaren edozein hartzekodunek, nahiz eta kredituak baldintza edo epe batzuen menpean egon.

13.- Hilaren hartzekodunak bat baino gehiago izanik batzuek *separatioa* eskatuko balute eta beste batzuek ez balute eskatuko?

- a.-Ondorioak hilaren hartzekodun guztientzat izango dira.
- b.-Ondorioak *separatioa* eskatu dutenentzat baino ez dira izango, eta beraz, eskatu ez dutenak oinordekoaren hartzekodunekin batera joango dira.
- c.- Oinordekoaren etengabeko erantzunbeharra dago hilaren zorren aldera eta testamentuen eta zamen aldera.
- d.- Oinordekoaren hartzekodunentzat baino ez dira ondorioak.

14.-Oinordetzako ondaretik zorrak kobratu ezin zituzten hilaren hartzekodunek, *separatioa* eskatu eta gero, exekutatzeko ahal zuten oinordekoaren ondarea.

- a.- Jurista batzuek uko egiten zioten, haiek eskatutako *separatioak* aldentzen zituelako oinordekoaren ondasunetik. (Ulpiano,D.42.6.1.17)
- b.- Beste jurista batzuek onartu egiten zuten oinordekoaren hartzekodunek kobratuta zeukatenean (Papiniano,D,42.6.3.2).
- c.- Kredituak eta zorrak proportzionalki gutxituko ziren, bai Seio hilaren hartzekodunenak, bai Tizio oinordekoarenak.
- d.- Oinordekoak, Tiziok, hartzekodunei ordaintzeko oinordetzako ondasunak behin salduz gero, aurkeztuko diren ordenaren arabera ordainduko die, hartzekodunak Seio hilarenak izan edo bereak izan, lehentasunezko eskubideak errespetatuz.

15.- Kasu honetan:

- a.- Tiziok ez die ordaintzen hartzekodunei eta jaraunspena atxiki egiten du.
- b.- Tzioren eta Seioren hartzekodunak elkarrekin etortzen dira beren kredituak dakartzatela jaraunspenaren prezioaren banaketara.
- c.- Hartzekodunek bi exekuzio-prozeduretan jarduten dute (Ulpiano,D.42.6.1.1): Seio hilaren hartzekodunek oinordetzako ondarearen exekuzioan eta oinordekoaren

hartzekodunek Tizioaren ondarearen exekuzioan.

d.-Hartzekodunei ordaindu eta gero Seioaren jaraunspenaren hondakina Fiskora doa oinordekoak dolosoki zenbait hartzekoduni maula egin dien oinordetza kaltegarria delako.

SEME EMANTZIPATUAREN OINORDETZA

Tizio, Kaio, bere seme emantzipatua, izendatu zuen oinordeko bakar, eta xedatu zuen hura ez balitz oinordeko, Estiko esklabua askatzeko eta oinordeko izateko. Kaiok, aita erotuta zegoelakoan oinordetzako ondasunen edukitza eskatu zuen.

Tizio.- Testamentugilea.

Kaio.- Aitaren testamentuari uko egin dio eta testamenturik gabeko *bonorum possessioa* eskatu du.

Estiko.- Semearen ordezeko oinordekoa.

1.- Testamentua honako hau da:

a.- Egintza aldebakarrekua eta oso pertsonala da, solemnea eta ezeztagarria, zeinean oinordekoa izendatzea beharrezkoa baita, beste "*mortis causa*" xedapen batzuek gain.

b.- Egintza aldebakarrekua eta oso pertsonala da, testamentugilearen edozein nahi legitimo jaso dezakeena. Ez da beharrezkoa oinordekoa izendatzea, beste dokumentu batean egin daiteke eta.

c.- Testamentugileak bere nahia ordezekoen edo bitartekoen bidez egiteko era ematen duen egintza.

d.- Egintza ezeztazina da: testamentua egina egonez gero, testamentugileak ezin du ez aldatu, ez berregin, ez lehenagokoa deuseztatu.

2.- Esklaboak gai dira jaraunspena jasotzeko?

a.- Ez, hiritar erromatarrak ez direlako.

b.- Bai, baina bakarrik testamentuan izendatuak izan direnean, ez testamenturik gabe.

c.- Bai, pretoreak testamenturik gabekoaren bidez deitzen dituenen, baina ez testamentuaren bidez.

d.- Ez, legezko xedapenaren arabera: esanbidezko salbuespenak ere bazeuden.

3.- Egon al daiteke oinordekoaren izendapena baldintza etengarri baten menpe?

a.- Ez, "*behin oinordeko, betiko oinordeko*" printzipioaren kontrakoa litzatekeelako.

b.- Baldintza horrek ez du deuseztatzen oinordekoaren izendapena, baizik eta ez ipintzat hartua da.

c.- Bai, baldintza etengarriaren menpeko oinordeko-izendapenak balio du, eta baldintza betetzen ez den bitartean, oinordetza betegabetzat (jaberik gabeko oinordetzat) hartzen da, testamentu bidezko edo testamenturik gabeko jaraunspena (oinordetza) zabaldu gabe.

d.- Izendapen mota hori deuseza denez, testamenturik gabeko jaraunspena zabalduko da.

4.- Kasu honetan bigarren edo geroagoko izendapenen bat lehenengoaren menpean egongo litzateke?

a.- Ordezpen fideikomisario bat dago: testamentugileak oinordekoari agintzen dio oinordetza berehala ez emateko baizik eta gordetzeko eta gozatzeko, eta bakarrik bera hiltzean fideikomisodunari pasatzeko.

b.- Ordezpen pupilar bat dago: oinordeko bat izendatzen da eztestamentugilearentzat, baizik eta haren seme heldugabearentzat; ordezpena gertatzen da, baldin eta seme hori pubertarora heldu baino lehenago hiltzen bada eta ondorioz testamentua egiteko gaitasuna ere baldintzatuta dago.

c.- Ordezpen kuasipupilar bat dago, *paterfamiliasak* oinordeko bat izendatzen duelako familiako ondorengo ero baten jaraunspena jasotzeko, hura adimena berreskuratu gabe hilez gero.

d.- Ordezkapen arrunt bat dago, bigarren edo geroagoko oinordekoak lehendabizi deituaren lekua hartzen duelako, hark izan nahi ez izanez gero edo ezin izanez gero.

5.- Oinordekoak ez balu oinordetza onartuko, eta ez balitz ordezkorik egongo?

a.- Ez du axola, testamentugileak testamentuan jasotako xedapen guztiak exekutatu dira eta.

b.- Oinordekorik gabeko testamenturik ez dagoenez, barnean dauden xedapen guztiak (legatuak, manumisioak, tutoreen izendapenak, eta abar) indargabetzen dira oinordeko-izendapenak huts eginez gero. Hori dela eta, oinordekogaia oinordekoa ez izatera behartzen duten kausa guztiek testamentua deuseztatzea dakarte.

c.- Testamentuaren kontrako jaraunspena zabalduko litzateke, testamentugileak legezko xedapenak errespetatu ez dituelako.

d.- Forma-akats batek baliogabetutako testamentu baten aurrean egongo ginateke, eta legeak ezarritako epea pasatu eta gero, akats hori konponduko litzateke.

6.- Kasu honetan, semeak testamentu bidezko oinordeko-izendapena onartuko ez balu ?

a.- Testamenturik gabeko jaraunspenera pasatuko litzateke.

b.- Esklaboak oinordeko litzateke, semeak aitaren jaraunspena ez onartuz gero testamentu bidezko *manumisio* bat dagoelako. Eta esklaboak oinordeko izateko manumisiodun izan behar du lehenago.

c.- Ondorio bat ere ez luke edukiko, seme emantzipatuak testamentugilearen *heredes suus* bat denez, oinordetza *ipso iure* eskuratzen du, onartu beharrik gabe.

d.- Ez da kontuan hartzen testamentu bidezko oinordekoaren nahia, jurisprudenzia erromatarraren joera testamentua deuseztatzea ez zekarren soluzio bat aurkitzea zelako.

7.- Nori dagokio jaraunspena?

a.- Jaraunspena seme emantzipatuari dagokio.

b.- Jaraunspena Fiskoari dagokio.

c.- Esklaboak aske eta oinordeko bihurtzen da ordezenaren bidez.

d.- Jaraunspena seme emantzipatuaren seme-alabei edo ondorengoei pasatuko litzaieke.

8.- Zein actio izango luke onuradunak?

a.- *Actio ex testamento*.

b.- *Interdictum quorum bonorum*.

c.- *Petitio hereditatis*.

d.- *Vindicatio in libertatem*.

9.- Zer lortuko luke actio horrekin?

a.- Esklaboak Pretorearen aurrean bere askatasuna eskatuko luke.

b.- Semeak pretorearen aurrean eskatuko luke jaraunspeneko ondasunen edukitza.

c.- Esklaboak erabiliko luke, zeina pretoreak libre simulatzen baitu testamentugilea hil denetik, oinordetzako ondareak dauzkan semearen kontra.

d.- Esklaboak erabiliko luke semearen kontra, legatuak sortutako betebeharra konplizetzeko eskatzeko, testamentugileak oinordekoari adierazitakoarekin batean.

ANTONIO SILVANOREN TESTAMENTUA

<< Antonio Silvanok, Mauritaniako Traziarren lehenengo hegoko zaldunak, prefektoren alguazilak, Valeriores eskadroikoak testamentu hau egin zuen:

Marko Antonio Satrianok, nire semeak, nire ondasun guztiak jarauntsiko ditu, bai soldadutzan lortutakoak bai familiarengandik etorritakoak; nire gainerako ahaideak jaraungabetuak izan daitezela; jarauntsiaren onarpena *cretiores* bidez egin dezala; nire heriotzatik 100 egunera egin beharko du; onarpena ez badu egiten esandako eran jaraungabetua izan dadila. Kasu horretan, bigarren graduan, nire jaraunsle izan dadila Antonio R., nire anaia, eta neu hil naizenetik 60 eguneko epean jarauntsiaren onarpena *cretioz* egin dezala. Nire anaiari, nire jaraunsle izan ezean zilarrezko 750 denario ematen dizkiot legatuan. Soldadutzan lortutako ondasunetan prokurator izendatzen dut Hierax, Behex-en semea, hego bereko *duplicarius*, Ebuziores eskadroikoa. Nire ondasunak lortu eta eman diezaizkiola Antonia Thermuthari, lehen aipatutako semearen amari, nire semea eta jaraunslea tutoretzatik ataratzen denera arte, hark gordetzeko. Gero, amarengandik har ditzake.

Hieraxi eman eta legatzen dizkiot zilarrezko 50 denario. Eman eta legatzen dizkiot Antonia Thermatiri, lehen aipatutako nire semearen amari, zilarrezko 500 denario. Kronion, nire esklaboa, nire ondarea ondo administratu badu eta aipatutako jaraunsleari edo prokuradoreari ondasun guztiak eman badizkio, ni hil eta gero manumitutua izan dadin nahi dut, eta, halaber *vicessimako* zerga, manumisioagatik, ordaindu beharrekoa, jarauntsiko ondasunekin ordaintzea nahi dut.

Testamentu hau dolo gabekoa izan dadila.

Nemonos, Marioreen eskadroiko *duplicarius*, familiako ondarearen eroslea izan zen, balantzako edukitzaile M. Julio Tiberino zela, Valeriores eskadroiko *sesquuplicarius*, eta lehenengo lekuko, Turbinio, Prokuloren eskadroiko estandarte-ermailea.

Testamentu hau Alexandrian egin zen, Egipton, Augustoren neguko kanpamentuan, Traxanoren bigarren legio ausartean, Mauritania hegokoan, apirilaren kalendak izan baino sei egun lehenago, Rufino eta Kuadrato kontsul zirela. (K.o 142. urteko martxoaren 27an)>>

Testamentu hori Egipton aurkitu zen 1939an. Egur ezkoztatuzko bost oholtxoko poliptiko baten barneko oholtxoetan; batzuk besteei lotuak zeuden, eta latinez zeuden idatzita. Azken oholtxoak kanpoan lekukoaren izenak daramatza kanpoan.

Garrantzizkoa da *per aes et libram* heldu zaigun testamentu bakar oso bakarra delako.

KAIO LONGINO KASTORREN TESTAMENTUA ETA KODIZILO DIPTIKOAK

“ Kaio Longino Kastor, Misenako ontzidi pretoriarreko ohorezko beterano lizentziatuak honako testamentu hau egin du:

“ Marzela, 30 urte baino zaharrago den nire esklaboa, eta Kleopatra, 30 urte baino zaharrago den nire esklaboa, libre izan daitezela agintzen dut, eta bakoitza zati berdinetan nire jaraunsle izan daitezela. Gainontzeko guztiak jaraunsgabetuak izan daitezela. Nire jaraunsleek jaraunsiaren *aditioa* egin dezatela, bakoitzak bere zatian, dakitenean nire jaraunsle direla. Zilegia ez dakizkiela hipotekan ematea edo saltzea. Zerbait gertatuko balitzaio Marzelari, nahi nuke beraren jaraunsiaren zatia Serapio Sokratesentzat eta Longorentzat izatea. Kleopatrari dagokionez, gauza bera nahi dut; beraren jaraunsiaren zatia Nilorentzat izatea nahi dut. Nire jaraunslea, edozein izanda ere, testamentuan idatzita dagoen guztia egitera, ematera eta prestatzera behartuta dago, eta zintzotasunez jokatzeko erregutzen diot. Serapia, nire esklaboa, Kleopatra nire libertoaren alaba, libre izan dadila. Gainera, ematen eta legatzen dizkiot Caranis herrixka ondoan daukadan bost goldeko galsoroa, Estruto izeneko lekuan; haranaren laurden bat eta golde bat lur ere bai; nire etxeko heren bat eta aspaldian Perpeteutari, Tasentisen amari, erosi nion beste etxe baten herena; Erreten Zaharra izenekoaren ondoan daukadan palmadiaren herena ere hari ematen diot. Nahi dut lurperatua eta baltsamatua izan, nire jaraunseen maitasunarekin eta sinesmenekin fidaturik. Testamentu hau idatzi eta gero, nire eskuz idatzitako xedapenaren bat utziko banu, hura baliodun izan dadin nahi dut. Testamentu honetatik joan dadila eta ez dezala ekar dolo txarrik.”

Testamentu hau egiteko ekintzan familiaren ondarearen erosle moduan Julio Patronianok jardun zuen sestertzio baten truke; balantzaren eramailea C. Lukrezio Saturnillo izan zen, bere zigilu-marka ezagutu du; lekuko moduan B. Senpronio Hereklianok jardun zuen, bere zigilu-marka ezagutu du.

Testamentua Caranis herrixkan egin zen, Arsinoeko barrutian, azaroaren kalendetako 15. egunean, bi Silanotar kontsul zirela, Zesar Marko Aurelio Kommodo, Antonino, Pio, Feliz, Augusto, Armeniko, Mediko, Pariko, Sarmatiko enperadorearen 30. urtean, Athir hilean, hogeitabatgarren egunean.

Nire eskuz idatzitako beste dokumento bat utziko banu baliodun izan dadin nahi dut.

Arsinoe metropolian publikoki zabaldua eta irakurria izan da, Augustoren foroan, oinordetzei buruzko eta manumisioei buruzko zergako bulegoan martxoko kalendetako 9. egunean, Zesar Luzio Septimio Sebero Pertinax enperadorearen bigarren urtean izendatutakoak kontsul izanda, Mechir hileko 27an. Zigilatu zuten

gainerako lekukoak honako hauek izan ziren: Kaio Longino Akuilas, bere zigilua ezagutzen duena; Julio Bolusio, M. Antistio Petroniano, Julio Gemelo beterano dena.

KODIZILO DIPTIKOAK

“ Kaio Longino Kastor beteranoak, Misenako gerra-ontzi pretoriarretik ohorez lizentziatuak, honako kodizilo hauek egin ditu. Marko Senpronio Herakliano, nire laguna eta konfiantzazko gizona, prokuradore izendatzen dut erakutsi duen zintzotasunagatik. Nire odolezko senideari Julio Serenori ematen eta legatzen diot 4.000 sestertzio. Otsaileko idusetako zazpian idatzi nuen nire eskuz. Longino Akila eta Valerio Priscok zigilatu zuten – barruko idatzian - . Zigilatu zuten, orobat, – kodiziloaren itxieretan- K.Longino Akilak, zeinak, ekintzan egonda, bere zigilua ezagutzen baitu; Julio Filosenok; K.Lukrezio Saturnilok, zeinak, ekintza egonda bere zigilua ezagutzen baitu, eta Julio Gemelo beteranoak.

Zigiluak zabalduak eta ezagutuak izan dira testamentua zabaldu zen egun berean.

K.Luzero Geminiano, letra latindarretako idazlariak, lehenago idatzitako alea itzuli du, zeina bat baitator benetako testamentuarekin. Kaio Longino Kastorrek sinatua (K.o. 191 eta 194)“

Testamentuak honako hauek jasotzen ditu: aurreko manumisioa eta emakume esklaboak oinordeko izendatzea; jaraungabetzea: jaraunspena onartzeko betebeharra; ordezipen arruntak; legatuak eta manumisioa, eta geroagoko kodiziloen egiaztapena. Kodiziloan oinordetzako ondasunen prokuradorea izendatzen da eta beste legatu bat lagatzen da.

Papiro egiptoarrean idatzia dago, latinez, eta hura zabaldu eta gero beste bertsio bat ageri da grekoz. Testamentuaren irekieraren akta da, Karanisen, Arsino herrixkan, idatzia Kristo ondorengo 194. urtean: geroagoko kodizilo bat erantsita dago, testamentuan berretsia.

GAUZAK

Sailkatu honako hauek kategoria egokienean edo egokienetan:

- 1.- Itsasontzia.
- 2.- Gorpu baten errautsak lurperatuak izan ziren lekua.
- 3.- Gaztainondoazko armairu bat.
- 4.- Esklaboa.
- 5.- Liburutegia.
- 6.- Papiro gainean egindako eskuizkribua.
- 7.- Idia.
- 8.- Numismatikoki oso arraroak diren txanponak.
- 9.- Ehun bat.
- 10.- Ehunaren gainean egin den marrazkia.
- 11.- Irudi baten markoa.
- 12.- Estiko esklaboa.
- 13.- Buztinezko ontzia.
- 14.- Axume-lihozko toga baliotsua.
- 15.- Terentziok egin zuen *Andria* komediaren eskuzko kopiak.
- 16.- Etxe bateko leihoa.

17.- Ardikia.

18.- Etxebizitza baten errenta.

19.- Mailegu-interesak.

LUZIOREN ERAZTUNA

Luziok, urrezko eraztun baten jabea denak, urtarrilaren 1ean Kaiori saltzen dio. Kaiok prezioa ordaintzen dio otsailaren 2an eta Luziok Kaiori martxoaren 3an ematen. Luziok eta Kaiok salerosketa formalizatzeko dokumentua apirilaren 4an egiten dute.

1.- Zuzenbide klasikoan, jabetzaren eskualdatzea zehazteko, garrantzitsua da honako hau jakitea:

- a. Eraztuna *res mancipi* dela.
- b. Eraztuna *res nec mancipi* dela.
- c. Eraztuna *gauza higitarra* dela.
- d. Eraztuna gauza suntsiezina dela.

2.- Noiz lortzen du Kaiok jabetza? (Zuzenbide Erromatarak eta Estatuko Zuzenbideak soluzio bera ematen dute kasu honetarako)

- a. Urtarrilaren 1ean.
- b. Otsailaren 2an.
- c. Martxoaren 3an.
- d. Apirilaren 4an.

3. Kasu honetan jabetza eskualdatzeko betebeharrak hauexek dira:

a. Kaiok eraztuna hartzea, Luziok isilbidez abandonatu du eta.

b. Gauzaren *traditioa*, Luziok eta Kaiok, hurrenez hurren, jabetza eman eta lortzeko duten asmoa, "*iusta causa*" eta saldu eta emandako gauzaren jabetza tradentearena izatea.

c. Jabetza emateko eta lortzeko bi parteen asmoa, *Ius Civilek* emandako epean egiten bada.

d. Bi alderdiak horrela jokatzera bultzatu dituen *iusta causa* edo berehalako motiboa: horrek bi alderdiei hala jokarazi die, eta haien jokabidea justifikatzen du. Adibidez: salerosketa, dohaintzaa, legatua...

4. Luzio eta Kaio erromatarrak badira, Kaiok lortzen duen jabetzari honela deritzo:

a. *Dominium ex iure quiritium*.

b. Jabetza bonitario edo pretorioa.

c. Jabetza probintziala.

d. Jabetza peregrinia

5. Zuzenbide Klasikoan Kaiok lortzen duen edukitzari honela deritzo:

a. *Possessio naturalis* edo gauzaren edukitza sinplea.

b. *Possessio ad interdicta* edo gauza baten gaineko boterea, interdiktuen bidez babestua.

c. *Possessio civiles*; interdiktuen babesa edukitzeaz gain, jabetza ere lortu egin daiteke usukapioren bidez, bai zuzenean bai zeharbidez titulu zuzena eta fede ona daude eta.

d. *Possessio ad usucapionem* edo denboraren poderioz gauza baten jabetza lortzea, legeak ezarritako betebeharrak bete eta gero, (*fede ona*, *res habilis*, eta justu titulua).

KAIOK ERAZTUNA GALDUKO BALU ETA HALABEHARREZ SENPRONIOREN ESKU EGONGO BALITZ

6. Kaiok Senpronioen kontra izango luke:

a. *Actio publiciana*

b. *Actio reivindicatio*.

c. Lapu-Actioa edo *actio furtiva*.

d. *Actio ex empto* edo eroslearen actioa.

TIZIOREN MANDOA

Tiziok, mando baten jabe kiritarrak, Kaiori saldu eta eman dio mandoa

1.- Zuzenbide Klasikoan jabetza-aldaketa zehazteko, mandoa honako hau da :

- a.- *Res nec mancipi*.
- b.- *Res mancipi*.
- c.- Erdi higigarria.
- d.- Gorputzezko gauza bat.

2.- Jabetza Kaiori pasatzen dio?

- a.- Kaiok jabetza zibila eskuratzen du.
- b.- Kaiok jabetza pretorioa eskuratzen du, ez jabetza zibila.
- c.- Ez dio pasatzen, ez jabetza zibila, ez pretorioa.
- d.- Kaiok edukitza naturala eskuratzen du.

3.- Zer *actio* dauka Tiziok Kaioren kontra ?

- a.- Bat ere ez, prezioa ordainduta dago eta.
- b.- *Actio ex empto* edo eroslearena, saldutako gauza eskatzeko.
- c.- *Actio reivindicatio*.
- d.- *Actio publiciana*.

4.- Kaiok erabil dezakeen defentsa hauxe da:

- a.- *Exceptio dolia*.
- b.- Bat ere ez.
- c.- *Rei venditae et traditae exceptioa*.
- d.- *Actio publiciana*.

Kaiok mandoaren edukitza galduz gero (*furtum* gabe) eta mandoa halabeharrez (istripuz) Senpronioaren esku badago:

5.- Zein *actio* dauka Kaiok Senpronioaren kontra ?

- a.- *Actio reivindicatioa*.
- b.- *Actio ex empto* edo eroslearena.
- c.- Actio publiciana
- d.- Bat ere ez.

6.- Mancipatioa edo *in iure cessio*rik eza *res Mancipi* bat eskualdatzean, honako hau da *ius civile*erako:

- a.- Jabetza berehala eskuratzea eragozten du eta usukapioaren bidez eskuratzerara behartzen du.
- b.- Berehalako eskuratze zibila dago, jabetza eskualdatzeko eta eskuratzeko borondaterik badago, forma-akatsa garrantzizgabea denez gero.
- c.- Eskuratzailaren egoera gozamen-dunarena bezalakoa da. Funtsean jabearen eskubidea bezalakoa da, eta dagoen diferentzia bakarra Estatuari ordaintzen zaizkion zergak dira.
- d.- Kasu hauetan, Zuzenbide Erromatarrek denen interesen mesedetan, jabetza-eskubideari mugak ezartzen dizkio.

7.-Ez badago *mancipatio*rik edo *in iure cessio*rik *res Mancipi* baten jabetza eskualdatzean, pretoreak:

- a.- Ez du eskuratzaila babesten, magistratuak ezin duelako *ius civile*aren kontra egin, justizia administratzen duenez gero legea aplikatu behar du eta.
- b.-Eskuratzaila berehalakoan babesten du eta gauzak horrela, traditioaren bidezko eskuratzea onartzen du.
- c.- Kaio, *ius civile*aren arabera, *dominus* izango da.
- d.- Salerosketa deuseza litzateke.

Kaio urtebetean mandoaren edukitzailea izanez gero:

8.- Zein izango litzateke haren egoera juridikoa ?

- a.- Jabe bonitarioa
- b.- Jabe zibila
- c.- *Ad usucapionem* edukitzailea
- d.- *Ex iure gentium* jabea

Mancipatio egin balitz eta Tizio ez balitz mandoaren jabea?

9.- Zer berme (garantia) izango du Kaiok?

- a.- Ez dauka bermerik (garantiarik)
- b.- Kaiok itaundu duten bermea (garantia) dauka.
- c.- *Mancipatio*aren barnean bermea dago.
- d.- Besteren gauzen *mancipatio* deuseza da.

10.- *Mancipio accipiensek* (mancipatioren bidez jasotzen duena) *actio auctoritatis*-a jarduteko:

- a.- Beste baten gauza dela jakin behar du.
- b.- Beste alderdiaren aldetik fede txarra egon dela frogatu behar du.
- c.- Gauza eskatzen duenaren kontrako judizioa irabazi behar du.
- d.- Beste alderdiari jakinarazi behar dio hirugarren batek gauza eskatzen diola eta gainera judizioan hirugarren horrek irabazi behar du.

11.- Ikusi berri dugun *Actio*aren bidez, Kaiok lortuko luke:

- a.- Prezioaren itzultzea.
- b.- Ebikzioa egotekotan itunduta dagoena.
- c.- Gauzaren prezioaren bikoitza.
- d.- Kalteen eta interesen ordaina jasotzea.

ERLEAK

Klaudiak, alarguna eta aberatsa zenak eta seme-alabarik ez zuenak, erlauntzak zeuzkan bere finketako bat.

Kontaezinezko erlategiak zituen, eta izugarritzko ezta, ezko garbi bikaina eta batez ere etekin ugariak ematen zizkieten. Negozioetarako zeukan sen erneak bultzaturik aukeratu zuen leku hori. Leku horretan lorea hain ziren aberats eta ugariak ezen urtaro guztietan ernatzen baitzen lore motaren bat, eta, horrela, intsektu gaixoez ez zioten inoiz xurrupeari uzten, beren jabearen faborez.

Erlategi batean hainbeste erle hazi zirenez, eta intsektu horien antzinako ohituraren arabera, hilarazi baino lehen, erreginetako bat leku erosoago baten bila irten zen, erle mordo batek jarraituta.

Klaudiak bi esklabo bidali zituen haien bila, baina aldi bat pasatu eta gero galdu egin zituzten. Geroago Klaudiak jakin zuen erlekumea Tizioren eskualdeko beste erlezain batean lursaileko zuhaitz adar baten zegoela.

(D: 41.1.44; D: 47.2.26; D:9.2.27; D:10.2.8.1; D:9.2.27; D:41.2.3.16; D:47.2.26; D:41.1.5.2-4; G.2.68; I:2.1.1.14-15; Kode Zibilaren 612 art.)


1.- Zein da erleen izaera juridikoa? Aldi baterako okupazioaren aurrean dagoen zalantza juridikoa.

- 2.- Klaudiak erlekumearen jabetza galdu zuen? Hala bada, noiz?
- 3.- Tiziok erlekumearen jabetza lortu zuen? Hala bada, noiz izan zen?
- 4.- Klaudiak Tizioren aurka izango lituzkeen *actio*ak.
- 5.- Tiziok dauzkan defentsa-tresnak.

ZORTASUNAK

Tizio, Kaio eta Senpronio, A, B, eta D predioen jabeak ziren; predioak elkarren jarraian zeuden. Senpronio, beheko aldean zegoen D predioaren jabea zenak, goian zegoen A predioko uren zortasuna Portu zuen. Erdian zegoen B prediotik zehar ura bere prediora eramateko baimena lortu zuen B predioko jabeak (hots, Kaiok) emanda.

Senpronio, beheko aldean zegoen predioaren jabeak, goian zegoen A predioa erosi zion Tiziori eta geroago beheko aldean zegoen D predioa Mariori saldu zion.



- 1º.- Tizio, Kaio, eta Senpronio
- 2º.- Senpronio, Kaio, Senpronio
- 3º.- Senpronio, Kaio, Mario

1.- *Nulli res sua servit* printzipioak adieerazi nahi du zortasuna(k)...

- a.- Ezin dela egon norberaren gauzen gainean.
- b.- Ondoan dauden fundoei dagokiela.
- c.- Fundo zerbitzugileari erabilgarritasun objektiboa eman behar diola.
- d.- Ezin dela oinarritu egitate batean.

2.- *Nulli res sua servit* printzipioaren ondorioz zortasuna...

- a.- Nahastearekin batera iraungitzen da, hots, fundo zerbitzu-hartzaile eta zerbitzugilearen jabea pertsona bera denean.
- b.- Indarrean dago, bi fundoen jabeak erabiltzen ditu eta (bata *iure proprietatis* et bestea *iure servitutis* .
- c.- Ez dago, fundo batek besteari baliagarritasunik ematen ez dio eta.
- d.-Sorraldian dago.

3.- Zuzenbide Klasikoan, fundo zerbitzugilea eta zerbitzu-hartzailea jabe beraren esku izan ondoren berriz bi jaberaren esku daudenean zer gertatzen da ?

- a.- Zortasuna berritzen dela.
- b.- Zortasunak indarrean jarraitzen du bai pasiboki, bai aktiboki besterentzeko unean besterik esan ez bada.
- c.- *Familiako aitaren patuaz* izeneko eraketa sortzen da.
- d.- Zortasuna ez da berritzen, ekintza egoki batez ez bada egiten.

4.- Gure kasuan, hasieran zortasun bat ala bi egongo dira ?

- a.- Bi zortasun, biak desberdinak dira eta: bata, akueduktuarena eta bestea ura ateratzekoa.
- b.- Fundo zerbitzugileak bi direnez gero, zortasunak ere bi izango dira.
- c.- Bi zortasun daude, bakoitza modu batez eratu da eta, eratzeko ekintza desberdinak erabili dituztelako.
- d.- Bakarrik akueduktuaren zortasuna dago, bere barnean ura ateratzeko eskubidea baitu.

5.- Gure kasuan, bi fundoak Senpronioaren esku daudenean:

- a.- Ura ateratzeko zortasunari buruzko nahasmendua sortzen da, ez ordea, akueduktuari buruzkoa.
- b.- Ez dago nahasmendua; eraketarako bi fundo zerbitzugileak erabili bagenituen, nahasmendurako ere jabe berak izan beharko dituzte fundo guztiek.
- c.- Zortasunaren bateratzeko joerak nahasmendua dakar.
- d.- Akueduktuarekiko zortasunik ez den bitartean, bestea ere bizirik dago.

6.- Zer *actio* dauka Mariok Senpronioaren kontra ?

- a.- *Actio emptia*.
- b.- *Actio reivindicatio*.
- c.- *Vindicatio servitutisa*.
- d.- *Actio publiciana*.

7.- Mariok Kaioren kontra dauzkan *actio*ak:

- a.- Reivindicatio-a.
- b.- *Actio doli*-a.
- d.- Prekarioko *interdiktua*.
- d.- *Vindicatio servitutisa*.

8.- Senpronioak Marioren kontra daukan defentsa:

- a.- *Actio venditia*.
- b.- Zortasunaren iraungipenaren *exceptio*.
- c.- *Reivindicatio*.
- d.- *Actio aquae puvliae arcendae*.

9.- Senpronioak Marioren kontra dauzkan *actio*ak:

- a.- *Vindikatio servitutisa*.
- b.- *Superficiebusen interdiktua*.
- c.- *Uti possidetis* interdiktua.
- d.- *Actio negatoria*.

GOZAMENA

Tiziok fundo senpronianoaren jabetza soila zeukan eta Tiziak gozamena. Tizio eta Tizia ezkontzen dira, eta horrexegatik Tiziak Tiziori ematen dio dote gisa fundoaren gozamena.

1.- Ezaugarri hauen artean zein ez daude gozamenean?

- a.- *ius in re aliena* da.
- b.- Gozamena kreditu-eskubidea da.
- c.- Aldi baterako eskubidea da.
- d.- Eskubidea fundoen gainekoa baino ez da.

2.- *Dotis datio* horretan gozamina eratzten da ...

- a.- *Mancipatioz*
- b.- *In iure cessioz*.
- c.- *Traditioz*.
- d.- *Deductioz*.

3.- Tiziak gozamina galtzen du dotean ematean?

- a.- Bai, Tiziok dotearen titularitatea (jabariarena izaten da) dauka eta.
- b.- Ez, fundoko fruituak ezkontzaren zemetarako izango dira eta.
- c.- Ez, senarrak dotea itzuli beharra dauka eta.
- d.- Ez, dotearekiko senarraren jabetza formal baizik ez da eta.

4.- Fundoaren gozamendun bihurtuko da Tizio?

- a.- Ez, gozamina *ius in re aliena* bat delako.
- b.- Bai, nahiz eta fruituak ezkontzaren zamei lotuta egon.
- c.- Bai, *dotis datio*agatik.
- d.- Bai, nahiz eta ezkontza amaitzean itzuli beharra eduki.

5.- Ondorio hauen artean zein sortzen da aurreko galderan aipatutako erregimenetik?

- a.- Senarraren eskubidea ez du babesten *vindicatio usufructus*ak baizik eta *actio negatoriak*.
- b.- *Non ususa* ez da aplikatzen.
- c.- Senarraren eskubidea aldi baterako izango da ez gozamenaren erregimenagatik baizik eta dotearen erregimenagatik.
- d.- Senarrak gozatzeko eta disfrutatzeke eskubide bat izango duela. (*ius utendi et fruendi*).

*** Dibortziorik egotekotan (senarraren erruagatik)**

6.- Dotearekiko andrearen eskubidea eratuko da:

- a.- Gozamina birsortzen denean.(eskubideen berritzea)
- b.- Epaiaren bidez senarrari gozamina berreratzeke betebeharra ezartzean.
- c.- Emakumeak daukan gozamina gehitzeko eskubidea.
- d.- Kontsolidazioz.

HIPOTEKA-SUBROGAZIOKO NEGOZIOA

Tiziok Senpronoren alde fondo bat hipotekatu zuen, eta gero Kaiori saldu eta eman egin zion. Geroago Meviok Tiziori dirua maileguan eman zion, Tiziok Senproniori ordaintzeko erabili zuen eta Mevioren alde fondo horren gainean hipoteka bat eratu zuen.

1.- Ezaugarri hauen artean zein ez dagokio bahiturari?

a.- Hartzekodunak gauzaren edukitza dauka (*ius possidendia*).

b.- Hartzekodunak gauza sal dezake eta salmentako diruarekin kobra dezake betebeharrak bermatua ez betetzeak dakarren kaltea.

c.- Bahiturak ez du ematen gauza bahitua erabiltzeko eskubidea.

d.- Eskubideak, bai errealak (gozamina, enfiteusia, azalera) bai pertsonalak ezin dira bahitu.

2.- Hipotekaz bermatu den kreditua ordaintzean (Senproniorena gure kasuan) honako hauek irautitzen dira:

a.- Kreditua eta hipoteka

b.- Actio errealak baina ez *actio* pertsonala.

c.- *Actio* pertsonala baina ez errealak.

d.- Eskubide errealak baina ez kreditukoak.

3.- *Pignusa* eratzeko haxe behar da: 1.-*Conventio pignoris* edo hartzekodunaren eta zordunaren arteko akordioa, 2.- *Conventio* kreditua izatea eta dela eta 3.- ...

a.- Zordunaren jabetza bonitarioa.

b.- Gauzaren edukitza naturala.

c.- Karga horren eraketaren publizitatea.

d.- Idatzita agertzea.

4.- Hipotekan:

a.- Zordunarengandik hartzekodunarengana eskualdatzen da jabetza zibila.

b.- Zordunak hartzekodunari jabetza bonitarioa eskualdatzen dio.

c.- Gauzaren edukitza hartzekodunari eskualdatuko zaio zor bermatua bete ez denean.

d.- *Pignusa* eratzen den unean gauzaren edukitza hartzekodunari eskualdatzen zaio.

5.- *Pignusi* egotzi zaion *anticresis* itunak haxe esan nahi du:

a.- Betebeharrak nagusia bete ez denean hartzekodunak gauza sal dezakeela eta prezioa kobratu.

b.- Bahiturako hartzekodunak gauzaren fruituak har ditzakeela kreditu bermatuaren interesen ordainketa konpentsatzeko.

c.- Betebeharrak bete ez denean hartzekoduna izango dela bahituran emandako gauzaren jabea.

d.- Bahiturako hartzekodunak ez bazuen eroslerik aurkitzen enperadoreari eska ziezaiokeela bahiturako gauza bere jabetzara pasatzeko.

6.- Bahiturako hartzekodun bakarra subrogatzeko (Meviok egin nahi duena), ikusi

ditugun betebeharrez gain honako hau ere beharrezkoa da:

- a.- Aurreko hartzekodunari ordaintzea.
- b.- Aurreko hartzekodunak bere hipotekari uko egitea.
- c.- Aurreko hartzekodunak bere mailari uko egitea.
- d.- Horietako bat ere ez.

7.- Gaurko hipoteka-printzipioen artean zein zegoen Erroman?

- a.- Publizitate-printzipioa.
- b.- Espezialitate-printzipioa.
- c.- Esanbidezko eraketaren printzipioa.
- d.- Lehentasun-printzipioa.

8.- Hipoteka Mevioren alde eratzean eta aurreko hartzekodunari ordaintzean subrogazioa:

- a.- Automatikoki sortzen da.
- b.- Ez da sortzen, Tiziok berripotekatzen duenean ez baitauka gauza *in bonis* (jabetza bonitarian).
- c.- *lure honorioak* edo Zuzenbide pretorioak sorteen du.
- e.- *lure Civilak* edo Zuzenbide zibilak sortzen da.

9.- Meviok bere alde erabiltzeko hauxe dauka:

- a.- Tizioren kontra *actio* pertsonala izateaz gain, *actio* erreala.
- b.- *Actio hipotecaria*, baina Tizioren *exceptio venditae et traditaeak* geldiarazten du.
- c.- *Actio* pertsonal bat bakarrik Tizioren kontra.
- d.- Ez dauka *actio* bat ere.

10.- *Pignus Gordianum* honako hau da:

- a.- Bahitura edo hipoteka eratzeko era normala, kontratu edo itun baten bidez egina.
- b.- Kreditu baten gainean eratu den bahitura-eskubidea. Kreditu-lagapena da, bahiturako hartzekodunak kredituaren titularrak eginbeharra hark zeuzkan *actio* guztiak dauzka eta.
- c.- Bermean emandako gauza atxikitzeko hartzekodunari aitortutako ahalmena bermatzen zuen kreditua ordaindua izan denean, iraungi den bahiturak edo hipotekak bermatzen ez zituen aurreko kredituak aseguratzeko.
- d.- Gutxienik hiru lekukok sinatu zuten dokumentuan zegoen hipoteka, eta hipoteka pribilegiatuaren izaera zeukan.

BETEBEHARRAK EDO EGINBEHARRAK

Seiak eta Tiziok estipulatu zuten Tiziok Damas edo Eros esklaboa emango ziola Seiari. Tiziok Seiari Damas esklaboa eman nahi izan zionean, Seia berandutu zen Damas ez onartzean. Gero Damas hil zen. Ba al dauka Seiak *actorik* estipulatutakoa galdatzeko?

1.- Seiaren eta Tizioren arteko betebeharra honako hau da:

- a.- Nahibadakoa.
- b.- Hautazkoa.
- c.- Solidarioa.
- d.- Generikoa.

2.- Honako honi dagokio esandako betebeharretan prestazioaren objektua aukeratzeko eskubidea:

- a.- Beti hartzekodunari.
- b.- Ez badago akordiorik zordunari.
- c.- Alderdiek esandakoaren arabera.
- d.- Hirugarren batek ere aukera dezake.

3.- Kasu honetan aukeratzeko eskubidea dagokio:

- a.- Seiari
- b.- Tiziori
- c.- Seia eta Tiziori, bat eginda.
- d.- Aipatutako esklaboei: Damasi eta Erosi.

4.- Hartzekodunaren berandutza (*mora creditoris*) zera da:

- a.- Betebeharra konplitzean zordunaren arrazoirik gabeko atzerapena.
- b.- Hartzekodunak betebeharra konplitu dela onartzeari uko egitea .
- c.- Hartzekodunak betebeharra konplitu dela onartzeari uko egitea une egokia ez izategatik.
- d.- Kontratuaren prestazioa betetzeko epea ezartzea.

5.- Tizio, Tizia hartzekodunaren berandutzan erori dela-eta:

- a.- Aske gelditzen da hautazko betebeharra baitzen, eta akordiorik ez badago Tiziori dagokio aukeratzea.
- b.- Eros esklaboa eman behar du, objektu baten galerak ez baitu betebeharra iraungitzen hautazko betebeharretan baizik eta betebeharra gelditu diren objektuei dagokie.
- d.- Behartu dezake Damas bezalako beste jopu bat ematera.

6.- Seiak Tizioren kontra zera dauka:

- a.- *Condictio certa reia*
- b.- *Actio ex estipulatioa*
- c.- *Condictio certae pecuniae*

d.- *Exceptio non numeratae pecuniae*

7.- Tziok honako hau dauka actioren kontra:

a.- *Exceptio dolia*.

b.- *Exceptio rei venditae et traditae*

c.- *Exceptio iusti domini*

d.- *Exceptio metus causa*

ARDI LAPURTUEN EROSLEA

Kaiok, Tzioren artaldea hartu eta Senproniori saltzen dio. Senpronioek ez daki

artaldea ebatsia dela eta ardiei artilea moztu eta saldu egiten ditu: arkume batzuk ere jaten ditu. (D. 6.2.11; D.22.1.28)

1.- Senproniok ardien jabetza lortu du?

a.- Bai, *nec Mancipi* gauzak direnez gero nahikoa baita jabetza lortzeko gauzen *traditioa* edo eskuratzea.

b.- Ez, gauzak ebatsiak izan direlako (*res furtivae*) eta ezinezkoa da dituzun baino eskubide gehiago ematea.

c.- Bai, kausa zuzena dagoelako eta salerosketa jabetza lortzeko bidea delako.

d.- Ez, *res Mancipi* direnez *Mancipatioa* edo *in iure cessioa* behar delako jabetza lortzeko.

2.- Senpronio artaldearen jabe zibila izan daiteke urtebete pasatu eta gero, usukapionez?

a.- Bai, lehenengo unetik *fedea ona* eta *iusta causa* ditu eta.

b.- Ez, *fedea ona* usukapioaren denbora osoan eskatzen delako.

c.- Bai, *fedea oneko* edukitzaileak *a non domino* lorpenetan usukapitu dezakeelako.

d.- Ez, jabearen borondatearen kontra lortutako gauzak usukapiotu ezin direlako.

3.- Senproniok arkumeak usukapitu al ditzake?

a.- Bai, eskuratu duenaren edukitza-aldian sortu eta jaiok direlako.

b.- Ez, abereen kumeak fruitutzat hartzen direlako, eta ardiak ebatsiak izan ziren.

c.- Bai, *fedea oneko* edukitzailea denez, *iusta causa* dauka eta urtebete pasatu eta gero usukapitu dezakeelako.

d.- Ez, ardiak ebatsiak izan zirenean dagoeneko ernaldurik zeudelako.

4.- Usukapio erromatarrak, jabetza zibila lortzeko honako hauek behar ditu:

a.- Edukitza zibila, lehenengotik *fedea ona*, *iusta causa* eta denbora pasatzea (1 edo 2 urte) eta gauza *res habiles* izatea.

b.- Edozein edukitza mota, *iusta causa* eta denbora pasatzea.

c.- Etengabeko edukitza, *fedea ona* usukapioak dirauen bitartean eta denbora pasatzea.

d.- Bertan daudenenekiko 10 urteko eta absenteekiko 20 urteko edukitza paketsua.

5.- Tiziok Kaioren kontra dauzkan *actio*ak.

- a.- *Utrubi interdictuma*.
- b.- *Condictioa*.
- c.- *Aktio furtia*.
- d.- *Reivindicatioa*.

6.- Tiziok Senprionioren kontra dauzkan *actio*ak.

- a.- *Actio emptia* edo eroslearena.
- b.- *Actio furti-a*.
- c.- *Condictio-a*.
- d.- *Reivindicatio-a*.

7.- Senprioniok Kaioren kontra dauzkan *actio*ak.

- a.- *Actio publiciana*.
- b.- *Actio emptia* edo eroslearena.
- c.- *Actio furtia*.
- d.- *Interdicto uti possidetisa*.

8.- Tiziok *actio reivindicatoriaren* bidez honako hau lortuko du:

- a.- Ardiak berreskuratzen ditu, baina Senprioniok bere egiten ditu artaldea eman arte jandako arkumeak eta moztutako artilea.
- b.- Ardiak berreskuratzeaz gain Senprioniok jandako arkumeengatik eta moztutako artilegatik kalte-ordaina eman beharko dio.
- c.- Ardiak berreskuratzen ditu, baina Senprioniok, fede oneko edukitzaileak, *litis contestatioa* baino lehenagoko fruituak (jandako arkumeak eta moztutako artilea) bereganatzen ditu.
- d.- Ardiak berreskuratzen ditu, edukitzaileak hori baino ez baitu itzuli behar, fruiturik eta osagarririk gabe.

9.- Senprioniok, fede oneko edukitzaileak, doloz edo kulpaz artaldearen parte bat galdu edo hondatu balu:

- a.- Bakarrik dauka erantzunbeharra jabearen aurrean galera edo kaltea doloz edo kulpaz *litis contestatioaren* aurretik gertatu bada.
- b.- Bakarrik dauka erantzunbeharra galera edo kaltea doloz edo kulpaz *litis contestatioaren* ondoren izan bada.
- c.- *Litis contestatioa* pasatu eta gero, doloz, kulpaz eta baita ustekabeko kausaz dauka erantzunbeharra.

d.-*Litis contestatioaren* aurretik doluz edo kulpaz kalterik edo galerarik izan balu erantzunbeharra dauka eta ez ustekabeko kausaz.

10.- Senproniok gauza guztia kontsumitu balu edo gauza osoki galdu balitz, zer defentsa izango luke Tiziok?

a.- *Actio reivindicatoria*

b.- *Actio publiciana*.

c.- *Condictioa*, gauza osoki galdu denez reibindicatoriarik ez dago eta.

d.- *Actio furtia*.

STIPULATIO ETA MAILEGU-DOKUMENTUA

Emilio Papiniano iuriskontsultu eta prefektu pretorioaren kontsultategian irakurri zen honako dokumentu (agiri) hau: "Neuk, Luzio Tiziok idatziz onartzen dut Publio Meviorengandik egiatan kutxan emandako 15.000 denario jaso ditudala. Publio Meviok datozen kalendetan kopuru hori txanpon onetan emango zaiola estipulatu zuen; neuk, Luzio Tiziok, hitzeman nuen. Esandako epean Publio Meviori edo eman behar zaionari ez balitzaio eman, ordaindu edo bermatu esandako kopurua, estipilatu zuen Publio Meviok eta biok estipulatu genuen nik, Luzio Tiziok atzerapenagatik zigor gisa denario bat gehiago ordainduko dudala hilabetero ehun denarioko".

1.- Kasu honetan honako hau dago:

- a.- Mandatua.
- b.- Mutua.
- c.- Salerosketa.
- d.- Fidantza.

2.- Kasu honetan diru-maileguak honako forma hau hartzen du:

- a.- Komodatua.
- b.- Besteren negozioen gestioa.
- c.- Stipulatioa.
- d.- Bahitura.

3.- Zer da *stipulatio*?:

- a.- Betebehar ahozko eta kausala.
- b.- Betebehar ahozko eta abstraktua.
- c.- Betebehar formala objektu generikoduna.
- d.- Promes bat formalismoa funtsezkoa ez duena.

4.- *Stipulatio*aren izaera abstraktuak hauxe dakar:

a.- Hizkeraren askatasuna onartzen dela, eta *verbak* esan latinezkoak nahiz grezierazkoak izan daitezkeela.

b.- Keinu eta idazkiak onartuak izan zirela ahozko adierazpenen ordeko moduan.

c.- Betebeharra baliagarria izateko, funtsezkoa dela kausa edo motibo justifikatua izatea.

d.- *Ius Civilerako* kausa edo motiboa ez dela kontuan hartzen eta betebeharra sortzen dela hitzak esan bezain laster eta horrela baino ez.

5.- Zuzenbide Klasikoan *stipulatio*a negozio juridiko kausal bihurtzen da, eta hauxe dakar:

- a.- Betebeharra sortzen dela hitzak esateaz batera.
- b.- *Stipulatio*a balioduna dela kopuru txikienean *stipulatorrak* eta *promissorak* esandako proposamen eta onarpenak desberdinak direnean.
- c.- *Stipulatorraren* demandaren kontra *promissorak exceptio de doloa* aurkez dezakeela, betebeharra kausa batean oinarrituta ez dagoenean.
- d.- *Promissorak* bere burua ordaintzera behartzeko kausak ez dauka zer ikusirik *stipulatioaren* eraginkortasunarekin eta baliotasunarekin, eta kausa ez badago egiaztaturik zordunak ez du ezer irabazten hori erakutsiz.

6.- *Stipulatioaren* izaera abstraktuaren galerarekin kogniziozko prozeduran honako hau onartu zen:

- a.- Objektu moduan bakarrik eduki zezakeela diru kopuru edo *res certa* bat, inoiz ere ez *res incerta* bat.
- b.- Hizkuntza atzerritarrak erabil zitezkeela kontratuko bi alderdiek ulertzekotan, eta *Corpus Iurisean* ere interpretearen erabilera onartzen zela.
- c.- Idatzita dagoen *stipulatio* baten oinarritutako demandari (eskaerari) *exceptio non numerata pecuniaearen* bidez aurka egiteko ahalbidea, baina horren zioak ordaindu gabeko mailegua izan behar zen. Onartu egin zen halabere *promissorak* berak taka zezakeela kontratuaren deuseztasuna eskatzen *querela non numeratze pecuniaearen bidez*.
- d.- Praktikan *stipulatio* batek ondorioak izan zitezakeela proposamenaren eta onarpenaren ahozkotasunik gabe.

7.- Ahozko betebeharraren formalitateak honako hauek dira:

- a.- Kontratatzaileen aldi bereko presentzia, idazkera, eta egintza-batasuna.
- b.- Kontratatzaileen aldi bereko presentzia, egintza-batasuna, ahozkotasuna eta galderaren eta erantzunaren arteko adostasuna.
- c.- Proposamenaren eta onarpenaren arteko adostasuna, objektua diru kopurua izatea eta diru hori interesak ordaintzeko beharrezkoa izatea.
- d.- Alderdien adostasuna, objektu mugatua eta kontratu idatzia.

8.- Luzio Tiziok 15.000 denario hartu dituela idatziz aitortzeak honako hau dakar:

- a.- Idazkera elementu funtsezkoa dela, borondateen akordio horrek ondorio

juridikoak izan ditzan.

b.- Negozioa dokumentua sinatu denetik ondorioak izaten hasten dela, sinatu baino lehenago ez da-eta existitzen.

c.- Dokumentua funtsezkoa dela ahozko kontratu batean eta borondateen akordioa adierazteko era errazena da, eta harreman juridikoen existentziari ziurtasuna emateko tresna bat.

d.- Idazkia, kasu honetan, froga-tresna baino ez da, idazkiaren bidez *stipulatio*a egin dela erakusten baitu.

9.- Mailegua itzultzeko epeak ezartzen dira?

a.- Ez, betebeharr nagusia, maileguan emandako diru kopurua, bermatuta badago, hartzekodunaren interesa babestuta dagoelako eta zordunak ordain dezake komeni zaionean.

b.- Ez, kontratuan esanbidez esaten delako zordunak Publio Meviori edo dagokionari ordaindu behar diola, eta pertsona hori ez dago pertsonalizatuta betebeharrean.

c.- Bai, epe bat ezartzen delako zordunak bere betebeharra konplitzeko, eta ez badu betetzen *mora debitorisean* egongo da.

d.- Bai, nahiz eta betebeharra sortu denetik galdagarria izan beti, haren menpe dauden epea edo baldintza kontutan hartu gabe.

10.- Ba al du barnean darama judizialki galda daitekeen adierazpen gehigarririk?

a.- Ez, kasu honetan bakarrik diru-maileguaz hitz egiten delako, betebeharr nagusia da eta.

b.- Bai, alderdien artean badago estipulazio penal bat, atzerapenagatik hilabetekoaren ehuneko bat ordaintzeko.

c.- Ez, negozioa zor-aitorpenaren dokumentu batean idatziz gero hartzekodunak ez du behar berme gehiago.

d.- Bai, esandako epean ez badio ordaintzen, hartzekodunak maileguan eman zizkion txanponak berreskuratzeko eskubidea gordetzen duelako, bereak dira eta.

11.- Kasu honetan klausula penala dago honako honetatik :

a.- Betebeharr nagusiari erantsitako akordioagatik zordunak prestazio bat ordaintzera behartzen duelako bere burua betebeharr nagusia bete ezean.

b.- Betebeharr nagusia bete ezean zordunak hartzekodunari emandako diru kopuruagatik.

c.- Hartzekodunaren eta fidatzailearen arteko hitzarmenagatik fidatzaileak hitzeman duelako zordun nagusiak bezainbeste ordainduko duela.

d.- Zordunak hartzekodunari gauza bat emateagatik, mailegua itzuli ezik konpentsatzeko.

12.- Klausula penalaren funtzioa hauxe dela:

a.- Zordunak bete ezean, betebeharraren nagusia ordainketa, horrek errazten du kalteen ordainketa lortzea, kopurua lehenago mugatuta dago eta.

b.- Betebeharraren nagusiari gehitzea, konplitu ez den betebeharratik eratorritako *actio* eta klausula penaltik datorren *actio* edukiko ditu hartzekodunak baten erabilerak bestearren kendu gabe.

c.- Betebeharraren nagusia konpentsatzea, bi alderdiak elkarren zordunak eta hartzekodunak dira eta.

d.- Hartzekodun nagusiaren oinordekoentzat ordainketa-gutun moduan balio izatea, hura hilez gero.

13.- Betebeharraren konplitzeko epea heldu eta Luzio Tizio zordunak ez badu ordaindu, Publio Mevio hartzekodunaren defentsa honako hau da:

a.- *Condictio triticaria*, objektua gauzen kopurua da eta.

b.- *Condictio certa reia*, objektu indibidualizatua da eta.

c.- *Condictio certae creditae pecuniae-a*, *stipulatio* diru kopuru bati buruzkoa da eta.

d.- *Actio ex stipulata*, agindutako betebeharraren ez baitatza *dare* batean, *facere* batean baizik.

TIZIOREN KODEXA (HARTZEKODUNA)

SARRERA (ACCEPTUM)

IRTEERA (EZPENSUM)

Seiarengandik 100 hartuta ex

Seiari emanda 100

venditio.

SEIA ZORDUNA DA: SALEROSKETA EDO
ERRENTA EDO
SOZIETATEA... egon delako

AGERTZEN EZ DEN EMAKUME SALTZAILEA

Tiziak Kaiori fundo batzuk saldu zizkion, eta erres-tituluan kopuru bat hartuta, epeak finkatu ziren prezioaren gainerakoa ordaintzeko.

Esanbidez itundu zen Kaio erosleak epeak betetzen ez bazituen erresak galduko zituela eta landa-finkak erosi gabetzat hartuko zirela.

Esandako egunetan, Kaiok jakinarazi zion Tiziari bera gertu zegoela prezioaren gainerakoa ordaintzeko, eta dirua zeukan poltsa itxi eta zigilatu bat kontsignatu (zainpean utzi) zuen, baina Tizia saltzailea falta izan zen.

Biharamunean, Kaiori jakinarazi zitzaion Fiskoari ordaindu baino lehen Tiziari ez ziola ordaindu behar, hura Fiskoarekin zorretan zegoen eta.

1.- Ba al dago salerosketa-kontraturik?

a.- Ez, emakume saltzailea itundutako prezioa jasotzera agertu ez delako.

b.- Ez, Tizia Fiskoarekin zorretan egon eta errekerimendua dagoenez gero, finkak Fiskorenak direlako.

c.- Bai, Tiziaren eta Fiskoaren artean akordio inplizitu bat dagoelako, auzi baten ondorioak ezerezteko.

d.- Bai, borondate-akordio bat dagoelako gauza bat emateko eta prezio bat ordaintzeko.

2.- Salerosketatik eratorritako *actioak* ba al du judizialki galdagarriak diren beste adierazpen edo itunik?

a.- *In diem adiectio* ituna, emakume saltzaileak kontratua deuseztatzeko aukera duelako epe zehatz batean eskaintza hoberik badu.

b.- *Lex commisoria* ituna edo klausula salerosketa deuseztatzen duena erosleak ez badu ordaintzen esandako epean.

c.- *Pactum displicentiae* bat edo salerosketa aldi baterako izateko hitzarmena, epe batean erosleak gauza ez badu gustuko, kontratua egin gabetzat hartzen da.

d.- *Pactum de retro vendendo* bat, saltzaileak epe zehatz batean prezio berean gauza berreskuratzeke eskubidea baitauka.

3.- Nolako eragina du salerosketan itun edo klausula honek?

a.- Baldintza etengarri baten antzekoa da, salerosketaren ondorioak geldiarazten ditu edo ez dira hasten baldintza bete arte (erosleak ordaintzea).

b.- Baldintza suntsierazle baten antzekoa da: hots, etorkizuneko ekintza baten edo ekintza zehaztugabe baten (erosleak ez ordaintzea), menpe dago kontratuaren iraungipena.

c.-Etorkizuneko une jakin bat ezartzen du negozio juridiko horren ondorioak hasteko.

d.- Erosleari nola jokatu eta finkak nola erabili behar dituen adierazten dio.

4.- Zer funtzio daukate erresek kasu honetan?

a.- Betebeharrak konplitzen ez dituen zordunarentzat ondorio larriak gehitzea, hornidurak galtzeaz gain betebeharra konplitzeko galdatzeko eskubidea bizirik dago eta.

b.- Saltzaileari prezioaren parte bat aurreratzea.

c.- Kontratua egiteko unea finkatzea eta kontraprestaziorik ezean emakume saltzaileari konpentsazioa ematea.

d.- Emakume saltzaileari gauza eman arte hura zaintzeak ekarri dizkion gastuen ordaina ematea.

5.- Ba al dago atzerapenik betebeharra konplitzean?

a.- Kaio eroslearen atzeraturik dago, itundu duten prezioa ordaintzen ez duelako esandako eran eta epean, eta ez da nahikoa kontsignazioa (zainpean uztea)

b.-Atzerapena dago alde saltzailearen aldetik, *mora venditoris*, prezioa jasotzera agertzen ez delako.

c.- Kaiok ez du atzerapenik, lehenago Fiskori ordaindu behar dio eta.

d.- Ez dago atzerapenerako aukerarik inongo alderdiren aldetik salerosketarako itun baten arabera emakume saltzaileak ordainketa faltagatik kontratua deusezta baitezake edozein unetan.

6.- Kaiok Fiskoari ordainduko balio?

a.- Ez litzateke ezer gertatuko, Kaio subsidiarioki behartuta dagoelako emakume saltzailearen lekuan.

b.- Emakumearen negozioen kudeatzailetzat har liteke, beraren mandatu gabekotzat.

c.- Salmentaren prezioaren aurrerapentzat hartuko litzateke.

d.- Fiskoak jakinarazi dionetik zorrak badirela ordaintzeko betebeharra dauka beraren orde.

7.- Tiziak bere betebeharrak ez balitu konplutukobeteko, zer *actio* izango luke kaiok?

- a.- *Condictioa*, aurreratu duen kopurua galdatzeko.
- b.- *Actio venditia*, prezioaren ordainketa galdatzeko.
- c.- *Actio emptia*, kontratuaren betetzeko edo prezioa itzultzeko galdatzeko, kalteordain eta guzti).
- d.- Bat ere ez, Fiskoa eskubide handiagoak dituen hartzekoduna delako, eta *actio* guztiak dauzka.

BESTE BATEN FUNDOAREN SALMENTA

Tiziok Senpronioaren fundo italiko bat saltzen dio Kaiori, eta fundo horren *mancipatioa* egiten du Kaiok prezioa ordaindu eta gero. Senpronioak, hiltzean oinordeko izendatzen du Tizio eta horrek onartu egiten du.

1.-Honako ezaugarri hauen artean, zein ez dagokio salerosketari?

- a.- Erosleak saltzaileari txanponen jabetza ematen dio.
- b.- Saltzaileak ezkutuko akats eta ebikzioagatik erantzuten du.
- c.- Saltzaileak erosleari edukitza baketsua eman behar dio.
- d.-Saltzaileak erosleari gauzaren jabetza eman behar dio, gauzaren jabe egin behar du.

2.- Tizioren eta Kaioren arteko harremanetan dagoen salerosketa honelakoa da:

- a.- Balioduna.
- b.- Deuseza.
- c.- Ezeztagarria.
- d.- Berdin da gauza bat edo bestea.

3.- Izan ere, salerosketa honelakoa da:

a.- Jabetza eskuz aldatzeko ekintza bat, eta beraren objektuak saltzailearen jabetza izan behar du.

b.- Ez da jabetza eskuz aldatzeko ekintza bat, eta hala saltzailearenak ez diren gauzak izan daitezke beraren objektua.

c.- Kontratu bat da, zeinean existitzen ez diren gauzak ezin baitira beraren objektua izan (izango diren fruituak edo uzta-biltzeak).

d.- Kontratu bat da, zeinean alderdi batek besteari gauza baten jabetza ematen baitio beste gauza baten jabetza lortzeko.

4.- Senpronioentzat salerosketa honako hau da:

a.- Baliioduna.

b.- Deuseza.

c.- Ezeztagarria.

d.- Berdin da gauza bat edo bestea.

5.- Beste baten gauzaren salmentan, Kaio erosleak:

a.- Antzekoa den gauza bat eska diezaioke saltzaileari dirua eman badio.

b.- Saltzailearen kontra kreditu-eskubidea dauka, gauzaren jabeak egin ditzakeen akzio errealez gain.

c.- Gauzarik gabe gelditzen da eta gainera emandako dirua ere galtzen du, azkarragoa izan beharko zuen eta.

d.- Kontratua egin duenez gero gauzaren jabea da eta edozeini eska diezaioke.

6.- Kaiorentzat, *actio in personam*ak babesten duen kreditu-eskubidea eratorriko balitz kontratutik, *actio* horrek balioko luke honako honetarako:

a.- Saltzaileari gauzaren jabetza eskatzeko, osagarri fruitu eta guzti.

b.- Aldi zehatz bat pasatuz gero gauza itzul diezaion.

c.- Saltzaileari gauza emateko edo bestela egindako kalteen ordaina eskatzeko.

d.- Saltzaileari kontuak eskatzeko eta egindako gastuak ordain diezazkion.

7.- Gauza desagertzen bada (inoren kulparik gabe) kontratua egiten denetik gauza ematen den arte:

a.- Eroslea libre geratzen da prezioa ordaintzetik, gauzaren galera saltzaileak jasaten du eta.

b.- Ez dago kontratutik, salerosketaren objektua ez dago-eta, suntsitu delako.

c.- Nahiz eta gauza ezin hartu erosleak prezioa ordaindu behar du. ("*res perit emptori* - gauza eroslearentzat suntsitu egiten da).

d.- Erosleak prezioa ordaintzea zuzena ez denez gero, salerosketaren deuseztatzeko eska dezake.

8.- Noiz esaten da salerosketan ebikzioa dagoela?

- a.- Saltzailearen doluz kontratua egiten den unean saldutako gauza suntsitzen denean.
- b.- Salmentaren objektua itxaroten diren gauzak direnean eta horiek ez direnean inon existitzen.
- c.- Erosleak hirugarren batek *actio reivindicatoriaz* egindako prozesu batean gauza galdu duenean.
- d.- Saltzaileak kontratua egin baino lehen bizioak ezagutzen zituenean.

SENPRONIO HIL ETA GERO

9.- Tziok Kaioren kontra daukan *actioa*:

- a.- *Actio reivindicatoria*.
- b.- *Actio publiciana*.
- c.- *Actio ex venditoa*
- d.- *Condictioa*

10.- Kaioren defentsa:

- a.- Bat ere ez.
- b.- *Exceptio pactia*.
- c.- *Exceptio rei venditae et traditae*.
- d.- *Exceptio dolia*.

11.- Kaiok *exceptio* egokia ezarriko ez balu, zer *actio* izango luke Tzioren kontra?

- a.- *Actio ex venditoa*.
- b.- *Actio dolia*.
- c.- Arrazoigabeko aberastasuna uxatzeko *condictioa*.
- d.- *Actio ex-emptia*.

DIRUA MAILEGUAN HARTU ZUEN IKASLEA

Tiziok, *filiusa* zenak, ikasle zela Erroman zegoenean, gestio batzuk egiteko 10.000 sestertzio ematea itundu zuen Kaiorekin:

1.- Ezaugarri hauetako zein ez dago mutuoan?

- a.- Mutuanteak emandako gauzen (diruaren edo gauzen) jabetza ematen dio mutuarioari.
- b.- Gauzaren suntsigarritasuna.
- c.- Ez da dohainezkoa: interesak ordaintzeko ituna baliagarria da.
- d.- Mutuarioak jasotako kantitatea itzultzera behartzen du bere burua, ez gehiago, ez gutxiago.

2.- Zer dio S.C. Mazedonianoak?

- a.- *Filiusak* egindako mailegua deuseza dela.
- b.- Mutuoa ez dagoela mutuanteak *filiusari* gauzak eman arte.
- c.- Ez dio aitortzen eraginkortasunik *filiusfamiliasari* emandako maileguari, *exceptioa* eman dio eta.
- d.- *Filiusa entrega noxal* gisa hartzekodunari ematea ahalbidetzen du.

3.- *Ius Civileari* jarraituz, zer *actio* dauka Kaio mutuanteak *filiusfamilia* edo paterraren kontra?

- a.- *Condictio certae creditae pecuniaee*.
- b.- *Actio reivindicatoria*.
- c.- *Condictio triticaria*.
- d.- Bat ere ez.

4.- Zer *actio* dauka Kaiok Tizioren kontra hura mantzipatua izan eta gero ?

- a.- *Actio reivindicatoria*.
- b.- *Condictio certae creditae pecuniaee*.
- c.- Txanponetako edukitza berreskuratzeko *utrubi interdiktua*.
- d.- *Actio furtia*.

5.- Tiziok daukan defentsa?

- a.- *Exceptio dolia*.
- b.- Gauza saldu eta emanaren *exceptioa*.
- c.- S.C.Mazedonianoren *exceptioa*.
- d.- *Exceptio pactia*.

6.- *Exceptio* horren bidez Tiziok lortuko du:

- a.- *Filiusfamilia* izan zenean jasotako maileguari eraginkortasunik ez ematea.
- b.- Mutuanteari isuna ipintzea, S.C Macedonianoren kontra joategatik.
- c.- Mutuo-kontratua deuseztatzea.
- d.- Lehen akastuna izan zen kontratua baliokidetzea.

7.- Tiziok, *paterfamilias* zenean, 10.000 sestertzio ordaintzen bazizkion Kaiori :

- a.- Itzultzeko eska ziezaiokeen Kaiori, betebeharra konplitzeko juridikoki ezin baitzen eskatu eta hala zor ez zenaren ordainketa bezalakoa zen.
- b.- Bakarrik eska diezaioke dirua itzultzeko bidegabeki aberastu den neurrian.
- c.- Ez dauka ondoriorik, Kaiok Tizioren kontra *actio* zibila zeukalako, *patria potestasaren* baretik irten da eta.
- d.- Kaiok emandakoa atxikitzeo eskubidea dauka, eta Tiziok ezin dio eskatu ordainketa itzultzeko.

8.- Nola deitzen zaie *exceptioa* dagoelako konplitzekorik eskatu ezin diren betebeharrei ?

- a.- Betebehar zibilak.
- b.- Betebehar generikoak.
- c.- Betebehar sozial edo moralak.
- d.- Betebehar naturalak.

9.- Ezugarri hauetatik, zein ez dagokie betebehar naturalei?

- a.- Ez daukate *actorik*, eta horrexegatik ez dago modurik zorduna behartzeko zorra betetzera.
- b.- *Nobatioak* egin daitezke eta horrela betebehar zibilek ordezkutzen dituzte.
- c.- Bahituraz edo hipotekaz berma daitezke.
- d.- Zordunak *condictio indebiti* erabil dezake hartzekodunaren kontra eman diona berreskuratzeko, zorrik izan gabe ordaindu dio eta.

10.- *Soluti retentioak*, betebehar naturalek sortzen duten ondorio gisa zera dakar:

- a.- Hartzekodun naturalak eskubidea daukala zordunak edozein modutan ordaindu diona atxikitzeko.
- b.- Zordunak *restitutio in integrum*a eska dezakeela, hots, gauza leheneratzeko ondorio juridiko guztiak desagertzea.
- c.- Pretoreak, *capitis deminutio minima* egon denean zibilki dauden obligatuentzat egon ez balitz moduan hartzen du, *actio* bat emanez.
- d.- Ez dela beharrezkoa kontratuaren objektua mugatua egotea.

FUNDO BAT EROSTEKO SEME BATI EMANDAKO MANDATUA

Tiziok Kaiori, Senprionioren seme emantzipatuari, agindu zion Koskonio Rufus, "Jurisprudentea"ri zuzenbide-irakasle aditu eta umore txarrekoari bi pisuko etxe bat zuen landa-finka bat eros ziezaiola.

Baina Senporoniok, Tiziok beraren semeari egin zion enkarguaren berri izatean berak erosi zuen semearen osasun makala zela eta, izan ere gaur arte haren ama Obiliak emandako zainketek baino ez zuten lortu mantentzea baldintza fisiko egokietan.

(D.3.5.45; D.17.1.1.4.; D.17.1.10.1-3; D.17.1.20; D.3.5.2; D.43.16.1.14; D.44.7.5.1; I.Inst.3.27; I.Inst.3.27.2; Gayo,3.155; Gayo,3,155; Gayo,3.162.)

1.- Zer harreman dago Tizio eta Kaioren (semea) artean?

- a.- Zorraren lagapena.
- b.- S. C. Mazedoniano kasu bat.

- c.- Besteren negozioien gestioa.
- d.- Mandatua.

2.- Mandatua honako hauxe da:

- a.- Pertsona batek beste baten negozioak kudeatzen ditu enkargurik hartu gabe, eta beharturik egon gabe.
- b.- Kontratuko alderdi batek bere burua behartzen du beste batek egindako enkargua doan egitera zerbitzu jakin bat egiteko.
- c.- Pertsona batek ordainketaren truke bere burua behartzen du agindutako gestioa egitera.
- d.- Aholku edo gomendio bat baino ez da, mandatariak ekintza jakin bat egin dezan eta kasu honetan Kaiok ekintza onuragarriago bat egin dezan berarentzat.

3.- Senpronioren (aitaren) eta Tizioren artean honako hau dago:

- a.- Mandatu bat.
- b.- Sozietate bat.
- c.- Besteren negozioien gestio batek.
- d.- Semeak aitari lagatako kreditu bat.

4.- Soluzioa honako honengatik da:

- a.- Tizioentzat interesa daukan esanbidezko agindu bat dagoelako.
- b.- Adostasunezko kontratua dagoelako, zeinean bi pertsonak beren burua behartzen baitute gauzak edo lana elkarri ematera gestio-batasuna eratzeko eta galerak eta irabaziak zatitzeko.
- c.- Senproniok Tizioren faborez gestio bat egiten duelako, beraren mandatua hartzeke, eta hori egiteko ahalmena ematen dion edo hartara behartzen duen kargua edukitzeke.
- d.- *Stipulatio* batez aitak semea ordeztan duelako betebeharrean.

5.- Zer betebeharrak dauka Tizio mandatu-emaileak?

- a.- Erosketaren gastuak semeari ordaintzea.
- b.- Ez du ezer ordaindu behar.
- c.- Fundoaren erosketaren gastuak aitari ordaintzea, hark semearen betebeharra onartzen baitu.
- d.- Haien arazoak kudeatu behar ditu.

6.- Zer betebeharrak dauka seme Kaiok?

- a.- Bere aitari fundoa erosten uztea. Semeak, dena aitarentzat hartzen duenak, hari negozioaz arduratzen utzi behar dio.
- b.- Mandatuari uko egitea.
- c.- Erositako fundoarekin gelditzea.
- d.- Gestioa egiteagatik interesak galdatzea.

7.- Zer betebeharrak dauka aita Senproniok?

- a.- Fundoa erostea. Mandatua onartu behar du, fundoa erosi behar du.
- b.- Semeari esosten uztea.
- c.- Fundoa semearekiko jabekidetzan erosi behar du.
- d.- Bat ere ez.

8.- Aitak fundoa erosteko agindua betetz gero, Zer *actio* dauka orain Senproniok mandatu-emaiaren kontra fundoaren erosketak ekarritako gastuak kobratzeko?

- a.- *Actio mandati contraria*, esanbidezko mandatu dago eta.
- b.- *Actio pro socio*, erosketa egin denetik Tizioren eta Senpronioren artean sozietate bat eratu delako, eta biak dira fundoaren jabekideak.
- c.- *Actio negotiorum gestio contraria*, egindako gestioan izan dituen gastuak eta kalteak eskatzeko, aitak esanbidezko mandaturik gabe agindua betetzen du eta.
- d.- *Restitutio in integrum*, egindako negozioaren ondorioak deuseztatzea lortzeko.

9.- Aitak, gestioa eginda, mandatu-emaiari ez balio gauza emango, zer defentsa luke Tiziok erositakoa itzultzeko galdatzeko?

- a.- *Actio mandati*.
- b.- *Actio negotiorum gestio*.
- c.- *Actio pro socio*.
- d.- Eroslearen *actio*, erositako gauza emateko galdatzeko.

10.- Zer lortzen du Tizio mandatu-emaiak *actio* honekin?

- a.- Gestioaren helburu izan den gauza itzultzea (irabazi, osagarri eta guzti), eta kudeatutako negozioaren ondorioz bere alde sortu diren akzioen lagapena.
- b.- Zorduna zelakoan okerturik ordaindu zuena itzultzea, bidegabeki hartu zuen pertsonak itzul diezaion.
- c.- Saltzailearen eta eroslearen artean egindako negozioa deuseztatzea edo ondorioz gabe uztea, gauza lehengo egoerara ekarriz.
- d.- Erositako gauza, Senproniorekin jabekidetzan daukana judizialki zatitzea.

11.- Negozioren gestioa eginda, mandatu-emaileak egindako gestioa berretsiko balu Zuzenbide klasikoan honako honen aurrean egongo ginateke:

a.- Mandatu baten aurrean, berrestek mandatuak bezainbeste balio baitu, eta hala mandatuaren akzioak negozioren gestioarena ordezkatzeko du.

b.- Negozioren gestioaren aurrean, geroago berrestek ez baitu eraginik harremanetan.

c.- Negozio deusez baten aurrean, kontrattuko alderdi baten borondate-aldaketatik.

d.- Negozio ezeztagarri baten aurrean, beste inguruabar bat agertu bat negozioren gestioa eratzean kontuan hartu ez zena.

12.- Senproniok finka erosteko gestio posible guztiak eginik ere, erosi ezin izango balu – hau da, Tizio emandako mandatu ez balitz bete -, Senproniok gastuen ordaina jasotzeko eskubidea izango luke?

a.- Ez, ondorioa ez bada egokia, gastu bat ere ordaindu behar ez delako.

b.- Bai, gestioa ondo egin zegoenean, nahiz eta ondorioa egokia ez izan, gestoreak gastuak eta kalteak galdatzeko eskubidea daukalako.

c.- Ez, esanbidezko mandaturik ez dagoenez, gestoreak bere gain eta galorde jarduten du eta.

d.- Bai, nahiz eta egokitasun nabaririk gabe jardun, gestoreak gastuak dauden guztietan, gastuen ordaina jasotzeko eskubidea dauka eta.

13.- Gestorearen jardura, *dominus negotii*arentzat egokia (*utilitas*) zela erakusten zuten premisak ikusi behar ziren. Nola ulertzen da hori?

a.- Gestoreak egindako jarduran, gestoreak berak ondarezko interesak edukitzea- hots, beretzat abantailaren bat lortzea-

b.- *Dominus negotii*ak gestorearen jardurari uko ez egitea ez isilbidez ez esanbidez.

c.- Ikuspegi objektibo batetik, *dominus*ak izango lukeen erabaki bat kontuan hartuz: edozein gizonek hartuko lukeena.

d.- Betebehar hau ez da kontuan hartzen, gestorearen jarduraren ondorio on edo txarra baino ez da kontuan hartzen, erantzunbeharrak kontutan hartzeko orduan, ondorioa kontratua da eta.

14.- Senpronio gestoreak Tizio *dominus negotii*arentzat premiazko beharragatik jardun bazuen, negozioren gestioarekiko bere betebeharra honako hau litzateke:

a.- Errua.

b.- Ustekabeko kasua.

c.- Doloa.

d.- Ezinbestekoa.

GORDAILATUTAKO KOPURUA ETA INTERESAK

Kinto Zezilio Kandidok Pazio Rogazianori eskutitz bat idatzi zion honela: “ Zezilio Kandidok Pazio Rogaziano bere laguna agurtzen du. Eskutitz honen bidez jakinarazten dizut nire esku egotea nahi zenuen 25 txanponak nire kontuan sartuak daudela eta saiatuko naizela lehenbailehen inbertitu gabe egon ez daitezen hots, horietatik zenbait inreres jaso ditzazun.

Galdetu zen ea interesak eska daitezkeen.

(D.16.3.28; D.12.1.9.9; D.17.1.34; D.16.3.25.1; D.16.3.26.1; D.16.3.29.1; D.16.3.31.1.)

1.- Gordailua honako hauxe da:

a.- Mailegu erabilgarri bat da, zeinean pertsona batek besteari gauza ez-kontsumigarri bat ematen baitio, higigarria ala higiezina, erabili eta gero itzultzeko.

b.- Mailegu kontsumigarri bat da, zeinean pertsona batek diru kopururen bat edo beste gauza suntsigarri batzuen jabetza ematen baitio beste pertsonari: pertsona horrek konpromisoa hartzen du aldi zehatz bat pasatu eta gero genero eta kalitate bereko kopuru berdina itzultzeko.

c.- Kontratu erreal bat da, zeinean pertsona batek gauza higigarri bat ematen baitio beste bati, hark doan zaintzeko eta eskatzen dionean itzultzeko.

d.- Kontratu erreal bat da, honek perfektionatzeko gauzaren entrega behar du eta ez da doakoa.

2.- Definizio horren ondorioz gordailuak:

a.- Gordailututako gauzaren jabetza edo edukitza eskualdatzea dakar, eta ez bidegabeko edukitzarena.

b.- Beharrezkoa da gordailututako gauza zaintzeagatik konpentsazio txiki bat hartzea .

c.- Ezin da eman gordailuan beste inoren gauza bat eta ezin du ez edukitzaileak ez lapurrak gordailutu.

d.- Berez bakarrik gordailutu daiteke gauza ez-suntsigarria, baina onartzen da ezberdinu eta identifikatu daitezkeen gauza suntsigarriak gordailutzea. Adibidez, zorro edo kutxa batean sartutako gauzak.

3.- Kandidok (gordailu-emaileak) Rogazianori gauza ebatsi izan balio, eta gero gauza bera eman balio gordailuan, gordailutze-kontratua legoke?

a.- Bai, gordailutzeak gauzaren bidegabeko edukitza ematea baino ez dakarrelako, ez edukitzarena.

b.- Ez, kontraturik ez dagoelako, lapurrak bere jabeari gauza lapurtua gordailuan eman bazion jabeak halakoa zenik jakin gabe.

c.- Bai, gordailutzeko kontratatzaileen arteko adostasuna nahikoa delako, eta beraz lapurrak gordailutu dezake eta baita gordailututakoa berreskuratu ere.

d.- Ez, kasu horretan Rogazianoren eta Kandidoren artean berme-behar solidarioa dagoelako, kuota idealetan zatituta eta bakoitzak gordailututako gauzaren erdiaren gaineko eskubidea dauka.

4.- Lapur gordailu-emaileak gauza hirugarren bati utziko balio eta gauza itzultzeko unean lapurra eta jabea agertuko balira, nori itzuli beharko litzaioke gauza?

a.- Lapurrari, bidegabeki edukitza eman ez gero lapurrak gordailutu dezakeelako, eta gordailututakoa berari itzuli behar zaio.

b.-Lapurtutako gauzaren jabeari, hura agertzekotan lapurtutakoa berari itzuli behar zaio eta.

d.-Gordailuzainak gordailutu zen gauza epaitegian kontsignatuko edo gordailutuko du.

d.-Gordailuzainak arbitroa izendatuko du, horrek gauza nori eman esan dezan.

5.- Aurreko kasu horren aurrean gaudenean:

a.-Mutuo baten aurrean gaude, diru-mailegu interesdun bat dago eta.

b.-Komodatu baten aurrean gaude, Zecilio Rogazianori gauza higigarria erabiltzeko eta berriro itzultzeko ematen zaio eta.

c.- Gordailutze irregular baten aurrean gaude, gordailuzainak erabil dezakeen diru kopurua gordailutzen da eta. Ez dago bidegabeko edukitarik, gauzen jabetza baino, Gordailuzainak bere burua behartzen du diru kopuru berdin bat itzultzera eta interesak ordaintzeko ituna dago.

d.- Sekuestro baten aurrean gaude, Zezilio Kandidok eta Pazio Rogazianok batera egiten dute gordailutzea eta, bakarrik egoera zehatz batean dagoen pertsona bati egingo zaio gauzaren itzuliko dela itunduta.

6.- Figura batean diru kopuru bat ematen da erabiltzeko, baina kopuru berdin bat itzuli behar da, eta interesak ordaintzeko ituna balioduna da. Figura horren sorburua honetan dago:

a.- *Filiusfamiliasaren* eta haren hartzekodunen arteko harremanetan.

b.- Erroman zegoen praktikan, ahaideen arteko ondare-harremanen barnean zeuden gurasoen eta semeen arteko harremanen ondorioz.

c.-Bankarien eta bezeroen arteko harremanetan.

d.-Itsas garraioan.

7.- Juriskontsulto klasiko gehienek harreman hori honela ulertu zuten:

a.- Ez da mutua, gordailutze irregularra baizik.

b.- Ez da gordailutze irregularra, mutua baizik.

c.- Miserable edo Beharrezko gordailutzea edo miserablea.

d.- Sekuestrotzat.

8.- Konpilatzaile Justinianarrekin, segur aski Papianok lehenago aldeztu zuen irizpideari jarraituz, harreman hori honela ulertzen dute:

a.- Mutuo da, diru kopuru bat ematea hitzartzen delako genero edo kalitate bereko beste hainbeste itzultzeko.

b.- Gordailutze Irregularra da, ez mutua, eta hori baino egokiagoa da, nahiz eta interesak ez itundu *actio depositi*aren fede oneko izaerak interesak eskatzeko aukera

ematen zuen eta; mutuoan, ostera interesen Stipulatioa beharrezkoa zen horiek eskatzeko.

c.- Fiduzia da, gauza *mancipatiogarriaren* jabetzaren eskualdatzen delako eta hartzen duenak bere burua behartzen du gauza epe edo egoera zehatz batean itzultzera.

d.- Errentamendua da, dohanik zaintzeko beharra onartzen ez delako, eta horregatik, konpentsazio ekonomikoa hartzen da.

9.- Aipatutako kasuan ba al dago akordio gehigarririk?

a.- Ez, horregatik Rogazianok alderdien artean interes-stipuliorik (*stipulatio usurarum*) egin ez denez gordailututako kantitatea eska dezake, baina ez interesak.

b.- Bai, Interes-ituna negozio juridiko nagusiari atxikita dago eta; Horrela Rogazianok Kandidori itundutako interesak eska diezazkioke, gordailutzearen fede oneko *actioaren* izaerak epaileari ahalmena ematen baitio itunak kontutan hartzeko.

c.- Ez, kasu horretan gordailutzea deuseza da eta, Rogazianok gauza erabil dezakeelako.

d.- Bai, testutik ondorioztatzen delako negozioan parte hartzen duten alderdien artean itunik badela eta Kandidok gauza berreskuratzeko eskubidea duela epe zehatz bat pasatu eta gero, beste aldeari hark ordaindu zion prezio berdina ordainduz.

10.- Kandidok ez balizkio emango ez dirua ez interesak Rogazianori, zer defentsa izango luke Rogazianok?

a.- *Actio reivindicatoria*, harreman erreala delako eta ez pertsonala.

b.- *Condictio* bat, eta Rogazianok emandako kopurua baino ezin du eskatu, baina ez interesak, alderdien artean ez dira itundu eta.

c.- *Actio furtiva*, gordailu bat dagoenez gero Kandidok ezin du gauza erabili.

d.- *Actio deposita*, gordailutzeak sortutako eginbeharrak betetzeko eskatzeko, eta akordioari jarraituz gordailutzeko *actioaren* bidez gordailututako kopurua eta interesak eskatuko dira.

11.- Kandidok gordailututako kopurua bere gauzetarako erabiliko balu interesak ordaindu beharko lituzke?

a.- Ez, stipulatu ez direlako *stipulatio usurarumaren* bidez.

b.- Ez, bere onurako erabili dituelako eta lagunen artean ez dira interesak zorretan izaten.

c.- Bai, fede oneko *actioaz* interesak zorretan zeudelako bai hartu zituenean bai bere konturako erabili zituenean.

d.- Bai, nahiz eta kapital printzipalaren irabazizko tituluan *donatioa* egon Rogazianoren alde, *donatioak* ez du baztertzen intereseen ordainketa Kandidoren alde hura bizi den bitartean.

BIZARGINA ETA PILOTA-JOKALARIAK

Filiusfamiliae batzuk pilotan jolasten zeudelarik, jokalarietako batek Tiziok, hain eman zion gogor pilotari, non Kaio izeneko bizarginaren eskuaren gainean jausi baitzen, hura Estiko esklaboari bizarra mozten ari zitzaiola. Kolpearen ondorioz, Kaio bizarginak ebaki bat egin sino eztarrian esklaboari, eta hura hil egin zen.

D.9.2.11.pr.

Kode Zibilaren 1.902 . artikuluan

1.- Kasu honetan honako delito hinen aurrean gaude:

- a.- Ebasketaren aurrean.
- b.- Errentamenduaren aurrean.
- c.- *Damnum iniuria datum*aren aurrean.
- d.- Irainen aurrean.

2.- Erantzunaren azalpena:

a.- Elementu objektiboa da *contractatio reia* edo indarkeriak eragindako esklaboaren mugimendua.

b.-Esklaboari egindako kalte fisiko edo irainak.

c.- *Animus lucrificiendi* edo onura ekonomiko bat lortzeko asmoa dago.

d.- Esklaboaren jabearen ondareari kalte egin zaio.

3.- Kaltearen egileak dauka erantzukizuna:

a.- Kontratuko erruagatik.

b.- Doloagatik.

c.- Kontratuz kanpoko erruagatik, hau da *erru aquilianagatik*.

d.- Beldurragatik.

4.- *Lex Aquiliae*aren 1. kapituluan esklaboaren hilketaren kasua arautzen da, baina, jatorriz hilketatzat honako kasu hauek galdatzen ziren:

a.- Hilak eta hiltzaileak elkar ukitzen dutenean (*corpore corporiak*).

b.- Ez egitearen ondorioz gertatzen denean.

c.- Ez zen beharrezkoa kaltea egotea bestearen gauza materialean edo bestearen gauza zatitzerakoan.

d.- Korruptoreak (galtzaileak) esklabuaren aurreko ustelkeriaren bidez egina izango zela hilketa.

5.- *Lex Aquilia*ek kaltearen egilearentzat agintzen zuen:

a.- Deportazioa

b.- Esklabotzaren antzeko egoera.

c.- Kaltetuaren aldeko diruzko isuna.

d.- Botere Publikoari diru kopuru bat ematea.

6.- Esklaboaren hilketaren kasuan, kaltetuari (biktimari) kaltearen egileak ordaindu behar zion zigorra finkatzean:

a.- Gertakaria izan baino 30 egun lehenago zeukan balio handienaren arabera kalkulatzen zen.

b.- Irizpide objektibo eta subjektiboen arabera kalkulatzen zen, epailearen arbitrotza librean oinarrituta.

c.- Esklabo hilak azken urtean izandako balio handiena.

d.- Erroman baziren Botere Publikoak aurrez ezarritako balioak, eta horien menpe zegoen epailea.

7.- Hildako esklaboa azken urtean oinordeko izendatua izan balitz, hiltzaileari ezarritako zigorra dirutan litzateke:

a.- Esklaboaren balio benala.

b.- Jaraunspenaren zenbatekoa.

c.- Esklaboaren balio benala eta jaraunspenaren zenbatekoa.

d.- Horietako bat ere ez, prezioak Botere Publiko erromatarrek ezartzen zituen eta.

8.- Hildako esklaboa esklabo-koru batean egon balitz, kaltearen egileari ezarritako zigorra honela kalkulatzen zen:

a.- Bizirik gelditzen zirenen balio-galtzaera kontuan hartuz.

b.- Esklaboaren balio benala.

c.- Galerak jabeari zekarkion balio subjektiboa baino ez zen kontuan hartzen.

d.- Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

9.- Jurista erromatarrek, *Lex Aquilia*aren arauak mendeetan zehar interpretatzen eta hedatzen jardun zuten:

a.- Benetan ez dago kasuen hedapen hori, jurista erromatarren

kontserbadurismoak *Lex Aquiliae*aren jatorrizko idatzaldiari jarriarazten die eta.

b.- Juristeen funtzioa oso mugatua izan zen, eta ekintza kaltegarria egitean *dolus* edo errua agertzea baino ez da izango beharrezkoa II. mendetik aurrera *damnum iniuria datum*ak izateko.

c.- EGITEAren ondorio kaltegarriak kontuan hartzen dituzte, eta EZ EGITEArenak ere bai; gauzaren zuzenean ukitzeak eragin ez duenean kaltea; ekintza kaltegarriek, ZUZENEAN gauzaren balio-galtzea edo suntsiketa eragin ez dutenean, baizik eta ZEHARKA Legitimazio aktiboaren kasuak hedatzen dituzte.

d.- Kasu kaltegarriak baino ez zituzten kontuan hartzen, kaltearen egilearen asmoa bere ondarea gutxitzea zenean, txirotzeko ekintza batzuen bidez, bere hartzekodunek kobra ez zezaten.

10.- Esklaboaren jabeak daukan *actio*a honako hau izango litzateke:

- a.- *Actio furtia*.
- b.- *Actio iniuriaruma*.
- c.- *Actio legis aquiliae*.
- d.- *Actio locatia*.

11.- Justinianok *actio legis aquiliae* honela definitu zuen:

- a.- *Actio reipersecutoria* bezalakoa, gauzaren gaurko balioa lortzen delako.
- b.- Penala, kaltearen egileari diruzko pena, zigor moduan, ezartzen zaiolako.
- c.- *Actio mistoa*, *reipersecutoria*a, gauzaren gaurko balioa lortzen delako, eta penala, gehigarri bat lortzen delako objektuak gehiago balio bazuen lehenagoko urtean edo hilabetean.
- d.- erabilgarria, legez kanpoko kasuetarako baliatzen zen eta.

12.- Esklaboaren jabeak, esklaboari egindako kaltearen ordaina nori eskatuko dio ?

- a.- Esklaboari.
- b.- Tizio jokalaria, zeharka egindako kaltearen egileari.
- c.- Bizarginari.
- d.- Inori ere ez.

13.- Eta bizargina lanean ari bazen jolastu ohi zen lekuan edo trafiko asko egoten zen lekuan, nori egozten zaio errua?

- a.- Esklaboari.
- b.- Tizio jokalaria.
- c.- Bizarginari.
- d.- Inori ere ez.

14.- Eta inor, kasu honetan esklaboa leku arriskutsu batean aulkia daukan

bizarginarekin fidatzen bada, nori egozten zaio erantzukizuna?

- a.- Esklaboari.
- b.- Jokalariari.
- c.- Bizarginari.
- d.- Inori ere ez.

15.- Ekintza kaltegarriaren egilea esklabo edo abere bat izango balitz, *in noxa emango* litzateke?

- a.- Ez, *Lex Aquiliaearen araber*a hildako esklaboaren jabeak beti jasotzen duelako konpentsazio ekonomikoa.
- b.- Bai, *Lex Aquiliaean*, jabeak zigorretik libratzeko aukera duelako kaltearen egilea biktimari emanez.
- c.- Ez, *damnum iniuria datum* delitu publikoa izateagatik jabearentzat aukera hori ez dago eta.
- d.- Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

KAPITOLION GERTATUTAKO GURDI-TALKA

Kapitolioko aldapan gora bi mando-gurdi bi zihoazen. Aurrean zihoan lehen gurdiaren mandozainek atzetik altxatzen zuten gurdia, mandoek errezago eraman zezaten.

Hala eta guztiz ere, gurdia hasi zen jausten eta gurdien arteko mandozainak albo batera kendu eta gero lehen gurdiak atzetik zihoana bultzatu zuen. Ondorioz atzeko gurdiak Tizioaren esklabo bat jo zuen.

GALDERAK:

1.- *Damnum iniuria datum*ean honako hauek daude:

- a.- Ondarezko kalteak egiten duenak etekin ekonomikoak lortzeko asmoa baitu.
- b.- Ondarezko kalteak, horretarako eskubiderik gabe, eta irabazirik lortzeko asmorik eduki ezean.
- c.- Zintzilik edo nonbait ipinita dauden gauzak jausiz gero beste bati kalte egiteko arriskuak.
- d.- Epaileak egindako kalteak, txarto doloz doluz zein arduragabekeriaz epaitu badu.

2.- *Damnum iniuria datuma* azaltzeko eta hedatzeko egindako lana handia izan da, eta horregatik:

- a.- Kaltearen egilearentzat ez zegoen ondorio kaltegarria egite batetik baino ez bazetorren kaltea; kaltea egilearen eta biktimaren arteko ukipenaren bitartez izan behar zen. (*Corpori corpore*)
- b.- *Aktio utilis Aquiliae* erabiltzeko gauza kaltetuaren jabeak baino ez zeukan legitimitaterik.
- c.- Ez egitetik eratorritako ondorio kaltegarriak ere jasotzen ditu, ez bakarrik egitetikoak; egileak zuzenean ukitu gabe gauzari egin dizkion kalteak ere aurreikusten ditu; eta baita beste kalte batzuk ere, gauza materialki kaltetu gabe, gauzaren aldaketa edo balio-galtzea eragiten dutenak.
- d.- Hartzen ditu kasu batzuk, zeinetan zordunak hartzekodunek kobra ez zezaten edo gutxiago kobra zezaten, nahita, gutxitzen zuen bere ondarea besterentze-ekintzekin, edo txirotxeko ekintzekin ere.

3.- Tiziok,esklaboaren jabeak, dauzkan actioak.

- a.- *Actio dolia.*
- b.- *Actio quod metus causa.*
- c.- *Actio iniuriarum.*
- d.- *Actio legis Aquiliaea.*

4.-Tiziok noren aurka erabiliko luke actioa?

- a. - Harrapatutako esklaboaren aurka.
- b.- Lehen gurdiaren mandozainen aurka, zeina aurrean baitzijoan.
- c.- Atzean zihoan gurdiaren mandozainen aurka.
- d.- Inoren aurka ere ez, halabeharrezkoa izan da eta.

OSTALARIAREN ARGIONTZIA

Ostalari batek argiontzi bat zeukan ipinita bidean, gauez, harri baten gainean. Tiziok, handik pasatzen zenak, eraman egin zuen. Ostalariak Tizio harrapatuta, argiontzia eskatu zion. Tiziok eskuan zeukan zartailu batekin hasi zen ostalaria jotzen bera askatzeko, zeinean ezte. Zartailuak ezten bat ezkututa zeukan. Jipioia gero eta larriagoa zenez, ostalariak begi bat atera zion Tiziori.

GALDERAK:

1.-Kasu honetan honako delito hau dugu:

- a.- *Damnum iniuria datuma* edo kalte-delitua.
- b.- *Furtuma*.
- c.- Irainak.
- d.- Hartzekodunen iruzurra.

2.-*Iniuriak* delitu moduan hartzen d(it)u:

- a.- Irabazi-asmorik gabe, pertsona baten ondareari kalte egitea.
- b.- Lesio fisikoak (kolpeak, zauriak) edo lesio moralak, pertsona batek beste bati eginak.
- c.- Kalteak, zeinetan ofenditu duena eta kaltetua ez baitaude baturik beren portaera egokitu behar duten kontratu bategatik.
- d.- Mehatxuak pertsona baten borondatea menperatzeko.

3.- Ostalariak Tizioen kontra duen *actioa*:

- a.- *Actio legis aquiliaea*.
- b.- *Actio iniuriaruma*.
- c.- *Actio furtia*.
- d.- *Actio quod metus causa*.

4.- Tiziok ostalariaren kontra daukan *actioa*:

- a.- *Actio dolia*.

- b.- *Actio legis Aquiliaea*.
- c.- *Actio iniuriaruma*.
- d.- *Actio furtia*.

5.- *Actio iniuriaruma*:

a.- Eskualdaezina da, aktiboki eta pasiboki, bai irainduaren bai iraintzailearen oinordekoen alde, zein kontra.

b.- Esklaboak diren kasuetan baino ez da egoten, eta ez pertsona libreak direnean.

c.- Delitua *filiusak* edo esklaboak eginez gero, jabeak ezin zuen aukeratu iraina jasan duenari kaltea ordaintzea edo erruduna ematea.

d.- Kaltetuak edo irainduak ez zuen kalte-ordainik bat ere jasotzen, egileari zigor fisico bat ezartzen zitzaiolako.

IDIEN KOMODATU PARTEKATUA

Tiziok idi bat zeukan, eta, Kaiok haren auzokoak beste bat. Biek itundu zuten 10 eguneko komodatua, Tiziok hartuko zuen Kaioren idia eta horrek Tizioarena lan bat egiteko. Eta epe horretan Tizioaren idia Kaiok zeukan bitartean hil zen gaixotasunak jota.

GALDERAK:

1.- Ezaugarri hauen artean, zein ez daude komodatuan?

- a.- Gauza eskura ematea (entrega). Komodatuan nahikoa da komodatugilea gauzaren edukitzea naturala izatea.
- b.- Gauza kontsumiezin izatea.
- c.- Gauzaren uztea doakoa izatea.
- d.- Gauza erabiltzeko kontraprestazio-ordainketa egotea.

2.- Tizioaren eta Kaioren arteko harreman juridikoa honako hau da:

- a.- Truke bat.
- b.- Errentamendu bat. (Akurapen bat).
- c.- *Sui iuris* kontratu bat.
- d.- Gordailutze bat.

3.- Gure kasuan alderdiek honako hau ituntzen dute:

- a.- Zerbait egitea, beste aldeak beste zerbait egin dezan.
- b.- Zerbait ematea, beste aldeak beste zerbait eman dezan.
- c.- Zerbait egitea, beste aldeak beste zerbait eman dezan.
- d.- Zerbait ematea, beste aldeak beste zerbait egin dezan.

4.- Kaiok uko egingo balio Tiziori bere idia emateari, Tiziok erabil dezan, zer *actio* izango luke Tiziok?

- a.- *Actio comodatia*.
- b.- *Actio locatia*.
- c.- *Actio prescripti verbisa*.
- d.- *Actio emptia*.

5.- Kaiok idia itundutako eran erabiliko balu, eta idia gaixotasunak jota hilko balitz?

a.- Kaiok Tiziori galeragatik ordaina beharko lioke, nahiz eta gertaeran kulparik ez izan.

b.- Izandako onuraren neurrian baino ez luke erantzungo.

c.- Erabiltzaileak ez balu kulparik edo dolorik, kaltea jabeak jasango luke.

d.- Kalte-ordaina jarriko litzateke, Tizioentzat izandako ondorio kaltegarri guztiak kontuan hartuta. (Sortutako kaltea eta emandako irabazia)

6.- Idia hil balitz erabiltzailearen kulpagatik edo doloagatik, zer *actio* izango luke Tiziok?

a.- *Actio legis Aquiliae* (kalte-*actio*)

b.- *Actio furtiva*.

c.- *Condictio causa data causa non secuta*.

d.- *Actio comodatia*

BI ALDIZ EBATSITAKO ANDRE JOPUA

Kaiok Tiziori ebatsitako andre jopua zeukan. Kaiok fede onez erosi zion jopua Senpronio lapurrari eta 2 aureo ordaindu zizkion. Gero Aziok ebatsi zion.

Tizio: jopuaren jabea da

Kaio: fede oneko eroslea eta jopuaren edukitzailea da.

Senpronio: (lehenengo lapurra); Tiziori ebatsi dio jopua eta Kaiori saldu.

Azio: (bigarren lapurra); Kaiori ebatsi dio jopua. Oraingo jopuaren edukitzailea.

1.- Honako elementu hauen artean, zein ez da *furtuma* .+6?

- a.- Egilearen iruzur egiteko asmoa, legez kontrako delakoan.
- b.- Ekintzak jabearen borondatearen kontra izan behar du.
- c.- Gauza higigarriaren ebastea izango da suntsitzeko asmoz.
- d.- Egileak irabaziak lortzeko asmoa dauka.

2.- Zer dira delitu pribatuak (*delicta*) :

a.- Legez kontrako ekintzak dira, kolektibitatearen izenean jazarriak, eta Estatuaren Organuek zuzenean zigortuak.

b.- Kaltetua iraintzen duten legez kontrako ekintzak dira, eta zigortzea kaltetuaren (biktimaren) eskubidetzat hartzen da, eta ez Estatuaren funtziotzat.

c.- Erasotzailearen eta kaltetuaren arteko borondate-akordioak dira ekintza bat eginaz, horretarako eskubidea eduki gabe.

d.- Ekintzak horien bidez gauza desohorez hartu zuenari itzul dezala eskatzen zaio.

3.- Akzio penalek *noxalæk izateak* honako hau dakar:

a.- Kaltetuak akzioak egin ditzakeela zuzenean jopuaren edo *filiusfamiasen* kontra, delituaren egileak dira eta.

b.- Delitua bi edo pertsonak edo gehiagok elkarrekin egin badute bakoitzak ordaindu beharko diola kaltetuari legez kontrako ekintza horretarako aurrikusitako zigor osoa.

c.- Hartzekodun kaltetuaren oinordekoek ez daukatela kreditu-eskubiderik legez kontrako ekintzaren egilearen kontra, erasotzailea eta kaltetuaren arteko arazo pertsonaltzat hartzen da eta.

d.- Akzio penala *dominusaren* edo *pater familiasaren* kontrakoa bada *dominusa* kaltetuarekiko erantzubeharretik libre gera zitekeen, baita zigorturik egonda ere, *filiusfamiliasa* edo jopua emanaz.

4.- Kasu honetan *contractatio reiaren* elementu objektiboa honako honetan datza:

- a.- *Furtum ususean*, beste baten gauza baten legez kontrako erabilera dago eta.
- b.- *Furtum possessionisean* norberaren gauzaren legez kontrako edukitza hartzen da eta.
- c.- *Furtum rei*an gauza zuzenean ukituz ebasten da eta.
- e.- Rapinan, jopea indarrez ebatsi da eta.

5.- Akzio penalak *actio reipertsecutoriekin* (*actio reibindikatoria, publiciana, condictio furtiva...*) bateragarriak direla esaten da azken horien helburua hauxe baita:

- a.- Kaltetuari isuna ordaintzea lortzea.
- b.- Gauza berreskuratzea edo galdutako irabazia itzultzea, kaltetuak jabe edo kontratatzaile gisa zeuzkan eskubideak ez ditu galdu eta.
- c.- Besteren gauzak indarrez hartu dituztenei zigorra laukoiztea.
- d.- Delitugileari zigor fisikoa ezartzea egindako *furtumari* dagokion isunaz gain.

6.- Tizio Senpronoren kontra dituen akzioak:

- a.- *Actio dolia*.
- b.- *Actio furtia*.
- c.- *Actio reivindicatio*.
- d.- *Actio publiciana*.

7.- Tizio Azioaren kontra dituen akzioak:

- a.- *Reivindicatio*.
- b.- *Actio furtia*.
- c.- *Interdictum utrubia*.
- d.- *Actio legis aquiliae*.

8.- Kaiok Senpronoren kontra dituen akzioak:

- a.- *Actio dolia*.
- b.- *Actio emptia*.
- c.- *Reivindicatio*.
- d.- *Actio furtia*.

9.- Kaiok Azioaren kontra dituen *actioak*:

- a.- *Reivindicatio*.
- b.- *Actio furtia*.
- c.- *Actio Publiciana*
- d.- *Actio emptia*.

ZORRA ORDAINTZEA ESKUORDETZEAREN BIDEZ

Klaudiak agindu zion Liviari 10.000 sestertzio eman ziezaizkiola Tiziori, horrek Kaiori, Klaudiaren hartzekodunari eman ziezaizkion, Klaudia harekin zorretan baitzegoen, hiru hilabete lehenago egindako mailegu bat zela eta.

1.- Nola deitzen zaio Klaudiaren eta Liviaren arteko harremanari:

- a.- *Fideiussioa*.
- b.- *Constitutum debiti alieni* edo beste baten zorreratiko *constitutuma*.
- c.- *Mandatum pecuniae credendae* edo kreditu-mandatua.
- d.- *Fideipromissioa*.

2.- Erantzunaren azalpena:

- a.- Bi alderdien artean ituntzen da beste batean zorra egun zehatz batean ordaintzea.
- b.- Berme pertsonal bat dago hartzekodunaren alde, eginbehar nagusia beteko ez balitz Liviak ordaindu beharko luke eta.
- c.- Pertsona batek beste bati emandako agindu bat dago hirugarren bati diru kopuru bat emateko maileguan.
- d.- Ituna egiten duten alderdiak bat datoz lehenagoko zor bat haietako batek ordain dezan.

3.- Zenbat kontratu sortzen dira?

- a.- Mandatua eta mutua.
- b.- Mandatua eta komodatua.
- c.- Besteren negozioen gestioa eta mutua
- d.- Mandatua *eta fideiussioa*.

4.- Agindua beteko ez balute, zer *actio* izango lituzke Klaudiak Liviaren eta Tizioren kontra?

- a.- *Condictio certae creditae pecuniae-a*.
- b.- *Actio mandati directa*.
- c.- *Actio mandati contraria*.
- d.- *Actio rei uxoriaea*.

5.- Liviak eta Tziok Klaudiaren aurka dauzkaten *actioak*:

- a.- *Actio mandati directa*, Klaudiaren eskuorde dihardute eta.
- b.- *Actio comodatia*, maileguan emandakoa berreskuratzeke.
- c.- *Actio mandati kontraria*, egindako gastuen ordaina lortzeko.
- d.- *Actio depensia*, hartzekodunari egindako ordainketa berreskuratzeke.

6.- Kaio hartzekodunak Klaudiaren aurka daukan actioa hark ordainduko ez balio:

- a.- *Condictioa*.
- b.- *Actio depositia*.
- c.- *Actio mandatia*
- d.- *Actio comodatia*.

7.- Kaio hartzekodunaren eskaeraren aurkako Klaudiaren defentsa?

- a.- S.C.Macedonianoren exceptioa.
- b.- *Pactum de non petendo*.
- c.- *S.C. Velleianiaren exceptioa*.
- d.- Bat ere ez.

8.- Ba al dago Klaudiaren *intercessiorik*?

- a.- Bai, Tizioarekin batera zordun solidario bihurtzen da eta.
- b.- Ez, bere arazoetan diharduen emakumea ez da-eta *intercessio*tzailletzat hartzen.
- c.- Bai, emakumea benetako zordunaren lekua hartzen ari baita.
- d.- Ez, emakumeak berak Tziok Kaiorekiko daukan zorra ordaintzen duelako.

9.- S.C.*Vellenianiak* honako hau ezartzen du:

- a.- Emakumeei maileguan dirua hartzea galaraztea.
- b.- Nahiz eta haiek ordaindu ahal izan beste inoren zorrak beren ondasunak besterenduz edo beharrezko dirua emanez beste inoren zorren arduradunak izatea galarazten die.
- c.- S.C.*Vellenianiaren exceptioa* ematen die emakumeei beraren zorra bermatu badu.
- d.- Zordun nagusiarekin batera behartzea galarazten dio emakumeari, baina onartzen dio deklaraztea beste pertsona bati egindako mailegu baten zordun bakar.

10.- *Intercessio* pribatiboaren kasuetan, hots, emakumeak zorduna ordezkatzeko duen nobazioan, edo emakumea beste batek hartutako maileguaren zordun deklaraztea eta egiten denean, pretoreak:

- a.- S.C *Velleiani* ematen zion emakumeari eta emakumea ezin zen demandatu izan.

- b.- *Actio* zuzenak ematen zizkion hartzekodunari benetako zordunaren aurka.
- c.- *Actio* utilak ematen zizkion hartzekodunari benetako zordunaren aurka.
- d.- Emakumeak zordunaren alde egindako *intercessioak* baliogabetzat hartzen zituen.

11.- *Beneficium excusionisak* honako hau adierazi nahi du:

- a.- Fidatzaile solidario batzuk egonez gero, hartzekodunak fidatzaile bakoitzari eska diezaiokeela zor osoa fidatzaileen kopuruaz zatituta ateratzen den kantitatea..
- b.- Hartzekodunak, fidatzailearen aurka joan baino lehen, zordun nagusiak kreditua ordaintzea lortzen saiatu behar duela.
- c.- Ordaindu duen hartzekodunak daukan eskubidea zorra kitatzeko ordaindu zuena berreskuratzeko.
- d.- Eskubidea zeukala ordaindu zuen fidatzaileak ordaindutakoa berreskuratzeko.

FIDANTZA

TizioK Kaiori hamabost mila sestertzio zor zizkion. Senproniok, *sponsor* moduan, zorretan zegoen kopurua ordaindu zion Markori, Kaioren *procurator* zenari, eta horrek ordainketa berretsi zuen, *sponsoraren* eginbeharra iraungitzat hartzen den epea pasatu eta gero. Fidatzaileak ordaindutakoa berreskuratu nahi du zorretan egon ez balitz bezala edo pretoreak eman diezaion *actioren* bat ordaindu zuena berreskuratzeko.

D.3.5.5.11; D.46.8;D.46,6,13;C.5.16.25

1.- Eginbeharren bermeez oro har hitz egiten dugunean, honako hau esan nahi dugu:

a.- Ordenamendu Juridikoan dauden tresna juridikoak direla, eta horien helburua zordunaren portaera dolozkoak galaraztea dela.

b.- Hartzekodunen iruzurra galarazteko tresnak direla.

c.- Eginbehar baten hartzekodunaren alde eraturako eskubideak direla, zordunak eginbeharra bete ezean kreditu bera kobratu ahal izateko, bai gauza bati bai pertsona zehatz bati eraginez.

d.- Tresnak penalak direla, eta horien helburua dela zordunak duen eginbeharra betetzera behartzea.

2.- Hirugarren batek erantzun behar duenean hartzekodun nagusiaren aurrean ,zordun nagusiaren modu berean -hots, solidarioki-edo zordun nagusiak epe batean ordaindu ezik -hots, subsidiarioki- honako hau dugu:

a.- Berme errealak (bahitura edo hipoteka).

b.- *Compromissuma* edo konpromisoa.

c.- Berme pertsonala (fidantza).

d.- Fiduzia.

3.- Berme pertsonalak honako hauek dira:

a.- Zordunak hartzekodunari ondasun baten jabetza eskualdatzea eginbehar nagusia bete dela bermatzeko.

b.- Zordunak ez diren pertsonak hartzekodunaren alde eraturako eginbehar osagarriak dira eta horien helburua zorra ordaintzea da.

c.- Zordunaren ondasunen edukitza hartzekodunari eskualdatzea, eginbeharra bete ezik hartzekodunak gauzaz jabetuta kobra dezan.

d.- Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

4.- Berme pertsonala egin eta gero:

a.- Hartzekodunak, bete ezik zordunaren kontra baino ezin du jo, ordaintzera behartuta dagoen bakararra da eta.

b.- Eginbehar *bacará* baino ezin egon daiteke nagusia, zorduna eta hartzekodunaren artean, eta ez bi eginbehar.

c.- Hartzekoduna, zorretan daukan prestazioa lortzeko, joan daiteke zordunaren kontra ezezik, eginbehar nagusia dela-eta zordun osagarrien kontra ere, berak eratutako eginbeharengatik, hartzekoduna horrela babestuta geratzen da zordun nagusiak ordaintzen ez badu ere.

e.- Zordun nagusiak ez badu ordaintzen eginbeharra iraungi daiteke.

5.- Honako hauen artean, zein ez da *adpromissioa* edo fidantza mota bat?

a.- *Sponsioa*.

b.- *Fidepromissioa*.

c.- *Fideiussioa*.

d.- Norberaren zorraren *constituma*.

6.- Fidantza edo *adpromissio* erromatarra honela eratzen zen:

a.- Hartzekodunaren eta fidatzailearen arteko gezurrezko salerosketa baten bidez.

b.- Hartzekodunaren eta zordunaren arteko *stipulatio* baten bidez.

c.- Hartzekodun, zordun eta fidatzailearen arteko *stipulatio* osagarri baten bidez.

e.- Hartzekodun eta fidatzailearen arteko *stipulatio* osagarri baten bidez, zeinean zordun nagusiak ez baitu ezertan ere parte hartzen.

7.- Kasu honetatik ondorioztatzen da Senpronio fidatzailea dela:

a.- Tizioarekin *stipulatio* bat egin duelako.

b.- Kaiorekin *stipulatio* bat egin duelako, eta gainera hiritar erromatarra da,

c.- Kaio *procurator* izendatu duelako.

d.- Tizioaren eta Kaioren artean eratutako eginbeharrean parte delako.

8.- *Sponsioaren* eta *fidepromissioaren* ezaugarri moduan honako hauek dauzkagu:

a.- Edozein eginbehar mota berma dezakete.

b.- *Stipulatio* batetik datozen eginbeharrak baino ezin zituen bermatu.

c.- Ez ziren iraungituen fidatzailea hiltzearekin batera; aitzitik beraren oinordekoei pasatzen zitzaizkien.

d.- *Sponsorrek* edo *fidepromissorrek* hartzekodunari egindako ordinketak ez zuen erabat iraungitzen eginbehar nagusia.

9.- *Lex Furia de Sponsuaren* bidez *sponsio*tik edo *fidepromissio*tik datozen

eginbeharrezko loturak:

a.- Ez zen inoiz iraungitzen, eta fidatzaileak loturik zeuden hartzekodunaren aurrean haiek hil arte.

b.- Bermea Italian eginda bazegoen bi urtean iraungitzen zen, eta probintzietan betiko zeuden loturik.

c.- Legeak beharturik, hartzekodunari ozenki eta lekukoen aurrean adierazi behar zitzaion kredituaren zenbatekoa, fidantza onartu zuten bermetzaileen kopurua eta bakoitzak bermatu zuen partea.

d.- Fidatzaileak ordaintzen bazuen, fidatzaileari ordaindu arte ez zen iraungitzen hartzekodunaren eta zordun nagusiaren arteko betebeharrezko lotura.

10.- Senpronio fidatzaileak edo *sponsorak* Markori, Kaioren prokuradoreari, ordaindu eta gero, honako hau dauka Tizio zordunaren kontra:

a.- *Actio negotiorum gestioa*, fidatzaile aurkeztu bazen, Tiziori kalteren bat ekiditeko.

b.- *Actio mandatia*, fidatzaile aurkeztu bazen Tizio zordunaren esanbidezko mandatu.

c.- *Actio depensia*, 6 hilabete pasatu eta gero Tiziok ez badio itzultzen hartzekodunari emandakoa.

d.- *Actio mandatia*, hartzekodunaren kontra, fidatzaile aurkeztu bazen Tiziok agindu ziolako.

11.- *Actio depensia* honako hau da:

a.- Fidatzailearengandik kobratu duen hartzekodunaren kontrako *actio* exekutibo bat, fidatzaileak ezin duenean kobratu zordunarengandik 6 hilabete pasatu eta gero.

b.- Zordunaren kontrako *actio* exekutibo bat, atzerabidekoa, ordaindu duen fidatzailearen alde emandakoa, hartzekodunari egindako ordainketa kobratzeko, zordunak esandako kopurua ordaindu gabe sei hilabete pasatu direnean.

c.- Zordunaren alde emandako *actio* bat, fidatzailea behartzeko hartutako konpromisoa betetzera gehienez sei hilabeteko epean.

d.- Bi urtean iraungitzen den *actio* bat, hartzekodunari ordaintzen ez dion fidatzailearen pertsona fisikoa ematea dakarrena.

12.- *Beneficium divisionis*ak honako hau dakar:

a.- Fidatzaile batzuk egonez gero, hartzekodunak edozeini eska diezaiokeela prestazioaren objektu osoa.

b.- Fidatzaile batzuk egonez gero, hartzekodunak zor osoa ordaintzeko judiziora deitzen zuen fiadoreak eska zezakeela kaudimendun ziren beste fiadore solidarioen kontra eraman zezan *actioa*, bakoitzari zor osoa zati fidatzaileen zenbakia geratzen kopurua eskatuz.

c.- Fidatzaile demandatuaren eskubidea zeukan, hartzekodunak zordunarengandik kobratzea lortzen ez zuen parteak silik ordaintzeko.

d.- Zordun nagusiak eskubidea, zeukan fidatzaileak zorraren parte bat baino ez bermatzeko.

13.- *Beneficium excusionis* honako hau da:

a.- Hartzekodunak kreditua kobratzeko zordun nagusiarengana edo fidatzailearengana joateko eskubidea.

b.- Hartzekodun nagusiaren eskubidea, fidatzaileak zordun nagusiaren modu eta neurri berebean ere konpromisoa hartzeko eskubidea.

c.-Fidatzailearen eskubidea, hartzekodunari galdatzeko, fidatzailearen kontra joan baino lehenago saia dadin zordun nagusia ordain dezan.

d.- Ordaindu duen fidatzaileak daukan atzerabideko *actioa*, zordun nagusiaren kontra joateko.

14.- Zuzenbide Justinianotarrean, ba al da *sponsorik* eta *fidepromissiorik*?

a.- Ez.

b.- Bai.

c.- Bide pretorioaren bitartez badira.

d.- Kasu berezi batzuetan badira eta legeak tasatutako kasu berezi batzuetan.

15.- Zein da Senpronio *sponsorak* ematen duen azalpena, zorretan ez zuen zerbait ordaindu zuela aldezteko?

a.- Eginbehar nagusirik ez zegoela.

b.- Hartzekodun nagusiak ordainketa berretsi zuela, eginbeharrik ez zegoenean, denbora igarota iraungi zen eta.

c.- Tiziok Kaiori obligazio nagusia ordaindua ziola.

d.- Kaio prokuradoreari egindako ordainketa ez dela balioduna, hartzekodun nagusia ez da eta.

16.- Zorretan ez dagoenaren ordainketa eta *conditio indebita* ageri dira kasu hauetan:

a.- Norbaitek zorduna delakoan ordainketa bat egiten duenean, fede onean hartu zuenarengandik eskuratutako kopuruaren edo gauza itzultzeko eskatzeko.

b.- Kausarik gabeko aberastasuna dagoenean, eskuratu duenak bidegabeki lortu duena berreskuratzeke nahiz eta zuzenbideak debekatu.

c.- Kausa gabeko aberastasuna dagoenean, kausa inmorelez edo trakeskeriaz eman dena itzultzea eskatzek.

d.- Gauza eman denean, exekutatua izan ez den kontraprestazio berdin bat lortzeko, emandakoa itzultzea edo horren adineko kalte-ordaina eskatzeko.

17.- Zorretan ez dagoenaren ordainketarik legoke kasu honetan, Senpronio

sponsorrak esaten duen moduan?

- a.- Bai.
- b.- Ez.
- c.- Senpronio fidatzailearen asmoaren arabera.
- d.- Zordun nagusiaren portaeraren arabera.

18.- *Fideiussioa*-a, *sponsioa* edota *fidepromissioa* baino berme berriagoa da,baina:

- a.- Lehenagokoek zeukaten araubide juridiko bera dauka.
- b.- Eginbeharrak betetzea eraginkortadun handiagoz bermatzen du.
- c.- *Stipulatioa* ez da beharrezkoa eratzeko.
- d.- Zuzenbide Justinianotarrean ez da existitzen.

BESTE BATZUK-1

Terentzio, erromatarra eta puberra, oso ondo moldatzen zen Agripa

auzokoarekin, eta horrexegatik, egin behar izan zituen bidaietako batean erabaki zuen Agripari uztea zaintzeko eta gordetzeko urrezko apaingailuak zituen gurdi eder bat zaintzeko eta gordetzeko, baina ez erabiltzeko, hura Galietako gerratik etorri arte (han borrokatu zen Julio Zesarrekin).

Bere alaba ederra, Domizia, Ponpeiorekin, erromatar dirudunarekin ezkontzen zela eta, Agripak erabaki zuen Domiziaren arrea eramateko gurdi ederra erabiltzea. Ponpeioren eta Domiziaren arteko ezkontza *conventio in manum* izanenez Agripak eskuzabaltasunez hornitu behar izan zuen bere alaba Domizia.

Terentzio Galietan bi urtean borrokatu eta gero itzuli da eta ikusi du Agripak ez duela emandako gurdi, Ponpeio suhiari erabiltzeko utzi zion eta.

Ponpeio, oso krisialdi gogorra pasatu ondoren, gurdi saldu egin dio bere lagun Drusori 6.000 sestertzioan nahiz eta oraindik ez eman eta Druso irrikaz dago gurdi nozi jasoko.

Hainbeste atsekabe izanda, Agripari bihotzekoak eman zion eta testaturik egin gabe hil zen, honako ondorengo hauek utzita: alaba Domizia eta haren semeak (Klaudio eta Neron), seme Suetonio bi hilabete lehenago emantzipatua, eta seme Marko Juliarekin *cum manu* ezkondua lau seme-alabaren aita, Galietako gerran hila.

GALDERAK

1.- Zer garaitakoak dira Galietako konkista eta Julio Zesar?

- a.- K.a. I. mendekoak. Augustoren garaikoak.
- b.- K.o. I mendekoak.
- c.- K.a. I. mendekoak.
- d.- Monarkiaren garaikoak.

2.- Terentzio eta Agriparen harreman juridikoa, honako hau da:

- a.- Mutuo-kontratua.
- b.- Sozietate-kontratua.
- c.- Gordailutze irregularreko-kontratua.
- d.- Gordailutze-kontratua.

3.- Zer delitu egiten du Agripak, Terentzioren gurdi erabiltzen duenean?

- a.- *Furtuma*.
- b.- *Damnum iniuria datuma*.
- c.- *Rapina*.

d.- *Iniuria*.

4.- Ezkonsaria honako hau zen:

- a.- Beti izan zen emaztegaiaren aitak senargaiari ematen zion diru kopurua.
- b.- Beti izan zen, ezkontzara ekarritako diru kopuru bat, baina horren jabea andrea zen.
- c.- Andreak, edo haren ahaide batek senarrari ematen zizkiona ondasunak ezkontzako bizitzak dakartzkien beharrak eta gastuak ordaintzen laguntzeko.
- d.- Beti izan zen andrearen familiak ezkontzara ekartzen zuen ondasun multzo bat, ezkontza deseginez gero gizonak itzuli behar zuena.

5.- Ezkontza desegiteko kausak honako hauek ziren:

- a.- *Repudiuma*
- b.- Ezkontideetako bat hiltzea, edozein ezkontide ezkontzarako ezgai bihurtzea eta *afectio maritalisa* desagertzea.
- c.- Ezkontideen heriotza
- d.- Dibortzioa

6.- Zer *actio* dauka Terentziok Agripari eskatzeko aspaldian emandakoa?

- a.- Pretorearen aurrean joan beharko du, *actio in factum* bat eman diezaion.
- b.- Ez dauka *actorik*, Terentzioren eta Agriparen arteko harremana *obligatio* naturala da eta.
- c.- Zuzenbide Justinianotarrean agertzen dena, hots, *actio depositi directa*.
- d.- Bat ere ez

7.- Zer *actio* dauka Terentziok gurdia eskatzeko Pompeiori?

- a.- *Actio depositi directa*.
- b.- *Actio depositi contraria*.
- c.- *Actio reivindicatoria*
- d.- Pretoreak emandako *actio in factum* bat.

8.- Zer kontratu egin dute Pompeiok eta Drusok?

- a.- Salerosketa bat.
- b.- Salerosketa faltsu bat.
- c.- Pompeiok ezin du gurdia saldu berea ez da eta.
- d.- Pompeiok ezin du gurdia saldu, ez eman, berea ez delako.

9.- Drusok prezioa ordaindu duenez, zer *actio*ren bidez eskatuko dio gurdia

Ponpeiori?

- a.- *Actio emptire*ren bidez.
- b.- *Actio venditire*ren bidez.
- c.- *Actio reivindicatoriare*ren bidez.
- d.- *Actio pro socio*ren bidez.

10.- Zein dira Agriparen *sui et necessarii heresak*?

- a.- Domizia, Suetonio eta Markoren lau seme-alabak.
- b.- Markoren emaztea eta Markoren lau seme-alabak
- c.- Domizia, Suetonio eta Marko bizirik egonez gero.
- d.- Domizia, Suetonio eta Markoren emaztea (Markoren ordezko).

11.- Suetonio Agriparen *heres zibila* da?

- a.- Ez, emantzipatuta dagoelako.
- b.- Bai, Agriparen odolezko semea delako.
- c.- Nahiz eta emantzipatuta egon, *Ius Civileak* Agriparen beste seme-alabei ematen dizkien eskubideak onartzen dizkio.
- d.- Nahiz eta emantzipatuta egon, oinordekoa da Domiziarekin batera ondasunen erdirako.

12.- Suetoniok eska dezake *bonorum possessioa*?

- a.- Pretoreari eska diezaioke *Ius Civileko* senipartea.
- b.- *Hereditasean* egon daiteke baina lortutako onurak kolazioa sartuz.
- c.- Ez dauka eskubiderik *bonorum possessioa* eskatzeko.
- d.- Pretoreari eska diezaioke *unde liberi bonorum possessioa*.

BESTE BATZUK-2

Kornelio, erromatarra eta *sui iuris* zen, baita *paterfamiliasa ere*, Ostiara joan nahi zuen egun batzuk pasatzera. Hasieran ez zuen familia osoa eraman nahi baina emazteak (*cum manu* ezkondukoak) hainbeste eskatu eta gero amore eman zuen eta denak joan ziren aste osoa pasatzera emazteak, Juliak, zeukan ahizpa batengana.

Bidaian zihoazela lapur batzuk agertu zitzaizkien eta asko ikaratu ziren, baina hala ere bizia salbatu zuten aurrera jarraitu zuten.

Lapurreta horretan gurdia, bi zaldiak eta urrezko bitxi guztiak kendu zitzaizkien, baina Juliaren ahizparen etxera heldu bezain laster atsekabe guztiak pasatu zitzaizkien eta egun atseginak pasatu zituzten.

Kornelioaren alaba, Lidia auzoko batekin, Mariorekin, maitemindu zen, eta hortik sei hilabetetara biak *sine manu* ezkondu ziren. Ezkontza horretatik Julia txikia eta Muzio jaio ziren.

Ezkontzarako Kornelioaren koinatuak, Eutimiok, Sultan zaldia opari eman zien ezkonberriei eta zaldiaren bila joatean Korneliok ikusi zituen saltzailearen kortan berari lapurtutako bi zaldiak.

Kornelio eta Eutimio konturatu ziren oso onak izango zirela zaldien negozioan, biei asko gustatzen zitzaizkielako zaldiak eta sozietate bat sortzea erabaki zuten zaldiak hazteko eta bide batez etekin politikak ateratzeko.

Halako batean Kornelio zaldi batetik jausi zen, kolpe txar bat hartu zuen buruan eta bi egun pasatu eta gero zendu zen. Julia emaztea, alaba Lidia eta seme Antonio utzi zituen Ostian. Erroman Liborio seme emantzipatua utzi zuen. Korneliok ez zeukan testamentua eginda hil zenean.

GALDERAK

1.- Gertaera horiek K.o 315ean izanez gero, zer enperadore egongo litzateke?

- a.- Konstantino
- b.- Hadriano
- c.- Augusto
- d.- Klaudio

2.- Lehengo galderan aipatu dugun enperadorea oso famatua izan zen , baina bere aurreko enperadore ospetsu batek izugarritzko erreforma egin zuen inperioaren administrazioan. Zer enperadorez hitz egiten ari gara?

- a.- Neronez
- b.- Dioklezianoz
- c.- Justinianoz
- d.- Tiberioz

3.- Zein izan zen lehenengo lege-kode idatzia erromatarrentzat?

- a.- Pretorearen ediktua
- b.- XII taulak
- c.- *Corpus Iuris Civilisa*
- d.- Kode Hermogenianoa

4.- Garai klasikoan nola eman behar zitzaion Sultanen jabetza ezkonberriei?

- a.- *Usukapioz*
- b.- Zaldia ematea nahikoa zen zaldiaren jabetza pasatzeko.
- c.- *Mancipatioz* edo *in iure cessioz*.
- d.- *Traditioz*

5.- Ba al dauka Korneliok *actorik* zaldi-saltzaileari eskatzeko bereak izan ziren zaldiak?

- a.- Korneliok ez dauka *actorik* saltzailearen kontra, berak ez ditu zaldiak lapurtu eta.
- b.- Korneliok saltzailearen kontra *actio reivindicatoria* dauka berari lapurtu zizkioten zaldiak berreskuratzeko.
- c.- Korneliok bakarrik dauzka *actioak* lapurren kontra.
- d.- Zaldiak bereak direnez Kornelio saltzailearen kortara joan eta zaldiak eraman ditzake.

6.- Sozietate-kontratua honako hau da:

- a.- Kontratu erreala
- b.- Kontratu formala
- c.- Ahozko kontratua
- d.- Adostasunezko kontratua.

7.- Korneliok ekarri nahi ditu sozietatera dauzkan 4 zaldi ederrak, baina, Eutimiok une horretan ondasun askorik ez daukanez sozietatera ekarri nahi du bere lana:

- a.- Ezin da sozietate bat sortu baldintza horietan.
- b.- Sozietate bat sortu nahi badute Eutimiok zerbait materiala ekarri behar du sozietatera zaldiakhala baitira.
- c.- Sozietate-kontratu bat egiteko nahikoa da Eutimiok bere lanak edo zerbitzuak ekartzea, nahiz eta ondasun materiala ez izan.
- d.- Ez du arduraz bazkideen ekarpenak, kontratuan nahi dutena adieraziz gero berdin da gero benetan egiten dena.

8.- Julia ez badago emantzipatuta, noren *potestas*en mende dago ezkondu eta

gero?

- a.- Bere gizonaren mende.
- b.- Ez dago inoren mende *sui iuris* da eta.
- c.- Kornelioren *potestas*aren mende.
- d.- Eutimioren *potestas*aren mende.

9.- Kornelio hiltzerakoan, zer *delatio* mota daukagu?

- a.- Testamentuzko *delatio*a
- b.- Legezko *delatio*a.
- c.- Testamenturik gabeko *delatio*a.
- d.- Nahitaezko *delatio*a.

10.- Kornelioren *heres sui et necesarii*ak honako hauek dira:

- a.- Julia, Antonio, Lidia eta Mario, eta Liborio.
- b.- Julia, Antonio, Lidia eta Mario eta horien seme-alabak.
- c.- Julia, Antonio, Lidia eta Liborio.
- d.- Julia, Antonio eta Lidia.

BESTE BATZUK-3

Kristo ondoko I. mendearen azkenaldian, Markok, hiritar erromatarrak, *paterfamilias*ak, ezkongabeak, 40 urtekoak, zorrez itota eta egoera horretatik atera ezinik zegoela, bere lagun Kaioren *potestas*pean sartzea pentsatu zuen. Azkenik ,

ez zuen egin.

Sui iuris bihurtu zenetik - hau da, bere aita eta paterfamilias Aurelio hil zenetik- gauzak ez zihoazkion ongi. Lehenengo arazoa izan zen bera *alieni iuris* zen garaian Luzilarekin izandako diru-zorraren erreklamazioarena.

Gero, idi-uztarri bat (bi idi) galdu zuen. Korneliok, auzoko batek, arduragabekeriaz utzi baitzuen ukuiluan belar txarren sorta bat, eta idiek jan eta bertan hil ziren.

Bitartean Kinto, bere lagun maitea hil zen. Kintok bere testamentuan Marko izendatu zuen oinordeko.

GALDERAK

1.-Marko Kaioren *potestas* pean sartzeko honako hau egin behar da:

- a.- *In iure cessio* bat.
- b.- Arrogazioa (*arrogatio*).
- c.- *Capitis deminutio maxima* bat.
- d.- Hiru salmentako adopzioa.

2.- Kaioren *potestas*pean sartuz lortuko al zuen Markok bere hartzekodunengandik ihes egitea ?

a.- Bai, *alieni iuris* bihurtzean ezgai bilakatzen zelako, eta beraz hartzekodunek ezin izango zituzten zorrak kobratu.

b.- Ez, *arrogatioa* egin eta gero *sui iuris* izaten segitzen zuelako eta gai zen ondore guztietarako.

c.- Ez, nahiz eta *alieni iuris* bihurtu pretoreak ezohiko neurriak hartzen zituelako, horien artean *in integrum restitutioa*.

d.- Hartzekodunek Fiskotik kobratu zitzaketen.

3.- Zer akzio izango du Luzilak bere zorra erreklamatzeko?

- a.- *Actio emptia*.
- b.- Mutuotik sortzen den *condictio certae creditae pecuniae*.
- c.- Mandatutik sortzen den *actio mandata*.
- d.- *Condictio ex causa furtiva*.

4.- Izango al da Marko kondenatua, gaur *sui iuris* dela, hura *alieni iuris* izan zen denboran izandako zorrarengatik ?

- a.- Ez, *S.C Macedonianoaren exceptioa* duelako.
- b.- Bai, mailegua izan dela frogatzen bada.

- c.- Ez, kontratutik bost urteko epea pasatu bada.
- d- Bai, eta horrez gainera interesak ordaindu beharko ditu.

5.- Luzilari bere borondatez aurrez aurretik ordaindu bazion ba al zuen ordaindutakoa erreklamatzetik?

- a.- Markok eska diezaioke kalte-ordaina Estatuari.
- b.- Ez, Luzilak atxiki dezake Markok libreki ordaindu ziona.
- c.- Markok ezin zion Luzilari ordaindu.
- d.- Bai, eta Luzilak jasotakoa itzuli egin beharko du.

6.- Kornelio auzokoak egindakoa honela kalifikatzen da:

- a.- *Iniuria*
- b.- *Damnum iniuria datuma*
- c.- *Stipulatio aquiliana*
- d.- *Rapina*

7.- Zer akzio mota erabil dezake Markok?

- a.- *Actio de pauperiea eta bi idi in noxaemateko aukera.*
- b.- *Actio legis Aquiliaea*
- c.- *Actio legis Aquiliae utilis*, kaltea ez zelako *corpori corporez* sortu.
- d.- *Actio iniuriaruma*

8.- Markok erreklama dezake:

- a.- Aurreko urtean idi-uztarri horrek izan zuen baliorik handiena.
- b.- Aurreko hilabetean idi-uztarriak izan zuen baliorik handiena.
- c.- Hil ziren unean idiek zuten balioa.
- d.- Idi-uztarriaren balioaren laukoitza (*in quadruplum*).

9.- Izenda al dezake Kintok lagun bat oinordekoz?

- a.- Bai, baino alboko ahaideei legatuak utziz.
- b.- Ez, ezinezkoa zen lagun bat oinordeko unibertuala izendatzea.
- c.- Bai, baina lehenbizi zeukan *heredes suiak* jaraungabetu behar zituen.
- d.- Bai, Erroman testamentua egiteko askatasun osoa zegoelako.

10.- Betetzen al zituen Markok oinordeko izateko baldintza guztiak?

- a.- Ez, Markok ezin zuelako zentsoaren goi-mailako pertsonengandik oinordetu
- b.- Bai, *pater familiasa*, hiritarra eta librea zelako.

- c.- Ez, nahiz eta hiritar erromatarra izan ez zegoel Kintoren *potestas*pean.
- d.- Ez, 40 urteko gizon ezkongabea zenez ez zuelako *ius capiendia*.

11.- Aurreko galderari eman zaion erantzunak honako oinarri hau du:

- a.- Zuzenbide honorarioa.
- b.- *Voconia legea*.
- c.- Augustoren arautegia.
- d.- XII Taulak

12.- Kinto testamenturik gabe hil balitz:

- a.- Markok oinordetuko luke.
- b.- Fiskora joango litzateke oinordetza osoa.
- c.- *Ab intestatoko* deiak zabaltzen dira.
- d.- Kodiziloek balioko dute, baina ez fideikomisodunentzat.

Itsasoari begira zegoen etxe eder bat erosi ahal izateko, Maximok Meridio lukuriarengana jotzen du. Hark maileguan ematen dio diru kopuru handi bat eta interes moduan urteko ehuneko hogeitun ituntzen dute. Dudarik gabe, Meridiok zorra ordainduko dela bermatzeko galdatzen dio fidatzaile kaudimenduak aurkezteko. Beste aldetik, Maximok erabakitzen du hutsik duen bere Erromako etxea errentan ematea Dezimori. Harekin itundu du, errentaren kopurua automatikoki ehuneko bost igoko dela urte natural guztiak amaitzean. Dezimok hitza ematen dio halaber etxebizitza berralukatuko ez duela. Etxean bizitzen hasteko beharrezkoak diren altzariak Maximok uzten dizkio komodatuan. Baina handik hilabete gutxira lapur bat sartzen da etxean eta altzariak lapurtzen ditu. Dezimok, altzari berriak ekarri beharrean, gastua konpentsatzeko etxeko alde bat berralokairuan ematea erabakitzen du, Maximok itsas ondoko urruneko etxetik jakingo ez duelakoan. Baina egoeraz jabetzen dena Komodo da, Maximoren laguna, eta bere izenean, Komodok Dezimo demandatzen du kontratuaren edukia ez betetzegatik; Dezimo absolbitua izango da Komodok, Maximoren faltan, azpialokairua kontratutik kanpo zegoela frogatzea lortzen ez duelako.

Maximo, egoeraren jakitun izan gabe etxe berrian halako batean, testamenturik egin gabe, eta honako hauek uzten ditu: alarguna, bi semeak – horietako bat emantzipatua izan zen hilabete batzuk lehenago -, eta Maximo baino lehenago hildako hirugarren seme baten bi bilobak.

GALDERAK

1.- Maximoren eta Meridioren arteko interes-ituna(k) :

a.- Ez da nahikoa Meridiok interesak eskatzeko, baina bai atxikitzeko Maximok bere borondatez ordaintzekotan.

b.- Interesak ordaintzeko betebeharra sortzen du, eta mutuoko fede oneko actionen bidez eskatzen da.

c.- Meridiori, interesak galdatzeko, emandakoaren itzultzeko mutuoan eskatzen den *condictio* bera erabiltzen uzten dio.

d.- Nahikoa da Meridiok interesak eskatzeko; Zuzenbide klasikoan interes itunduak estipulatuak bezalakoak direlako.

2.- Maximoren eta Meridioren arteko mutuotik sortutako zorra bermatuta egoteko, berme pertsonala honako hau izango da:

a.- Fidantza, hots, fidatzaileek hartzekodunari (Meridiori) ematen dioten diru kopuru bat.

b.- *Fideiussioak*, *fidepromissioak* eta *sponsioak* estipulatiotik sortzen diren betebeharrak baino bermatzen ez dituztelako.

c.- *Sponsio*, *fidepromissio* edo *fideiussio* bat, zeinean fidatzaileak Meridioren aurrean obligatzen diren.

d.- *Sponsio*, *fidepromissio* edo *fideiussio* bat, zeinean fidatzaileek Maximoren aurrean erantzunbeharra baitute beraren lekuan eginbeharra betetzeko.

3.- Erromako etxeari buruzko Maximoren eta Dezimoren arteko ituna:

a.- Gauzaren errentamendu bat, eta *ius zibileko* kontratua denez, Dezimori aukera ematen dio etxeke edukitzaile zibila izateko.

b.- Gauza baten errentamendua da eta Dezimo etxeke edukitzaile natural edo bidegabeko edukitzailebihurtzen du.

c.- Gauzaren errentamendu bat da, eta Dezimo etxeke edukitzaile pretorio bihurtzen du.

4.- Errentamenduaren urteroko hazkundearren ituna galdatzeko, Maximok honako hau dauka:

a.- Errentamendu-kontratutik sortzen den fede oneko *actio bera*.

b.- *Pecunia constituta actioa*, obligazio baten ordainketa luzatzen denean bezala.

c.- *Excepti pacti-a*, Zuzenbide klasikoko itunek ez dituztelako inoiz *actioak* ematen, *exceptioak* baizik.

d.- Ez dauka errekursorik, itun batek ezin duelako balio zordunaren egoera okertzeko.

5.- Ebasketa (edo lapurreta) egon denez, Dezimok ezingo du bere eginbearra bete, komodatu-hartzaile gisa eta, Maximo komodatu-emaileari altzariak itzuli.

a.- Dena den, Maximok galda diezaioke Dezimori altzarien balioa, "*periculum es commodatarii*" arauaren arabera.

b.- Hala ere, Maximok galda diezaioke Dezimori altzarien balioa, komodatu-hartzaileak zaintzaren erantzukizuna du eta.

c.- Maximok ezin dio ezer galdatu Dezimori, altzarien lapurretan errurik ez zeukan eta.

d.- Dezimoren betebeharra iraungitzen da betetzeko ezinagatik.

6.- Altzariak lapurtu zituenaren kontra:

a.- Maximok dauzka, bere aukeran *actio furtia* edo *actio reivindicatorioa*.

b.- Dezimok *actio furtia* dauka, nahiz eta Maximok jardun, altzarien jabe moduan, *actio reibindicatorioa* altzariak berreskuratzeko.

c.- Dezimok bakarrik dauka *actio furtia* Maximok *actio reibindicatorioa* jardun ez duelako.

d.- Dezimok dauka, bere aukeran, *actio furtia* edo *actio reivindicatorioa*.

7.- Komodori, bere lagun Maximoren aldeko egindako gestioak - Dezimori beraren izenean demanda jartzeko - gastu ekonomikoak ekarri dizkio:

- a.- Gastatutakoa galdatzeko *actio mandati directa* dauka Maximoren aurka.
- b.- Komodok besteren negozioen *gestioko actio contraria* dauka, Maximori gastatutakoa eskatzeko.
- c.- Komodok besteren negozioen *gestioko actio directa* dauka Maximoren aurka, gastatutakoa eskatzeko.
- d.- Gestioak porrot eginez gero, ezin dio galdatu Maximori gastatutakoa; izan ere, ez du inolako onurarik lortu, eta ez zion inork mandatua egin.

8.- Maximoren eta seme emantzipatuaren arteko ahaidetasuna hauxe da:

- a.- Agnatizioa baino ez da.
- b.- Ez dago ahaidetasunik, emantzipazioarekin batera desegin da eta.
- c.- Kognatizioa baino ez da.
- d.- Afinitatea baino ez da.

9.- Maximoren senideek, Maximo hil eta gero, pretoreari eska diezaiokete:

- a.- *Hereditasa* osatzen duten eskubide guztiak.
- b.- *Decuiusaren* oinordeko zibilen egoera.
- c.- *Sine tabulas bonorum possessioa*.
- d.- *Secundum tabulas bonorum possessioa*.

10.- Maximoren alargunak *sine manu* ezkonduak ba al dauka eskubiderik oinordetzarako?

- a.- Ez, hilaren seme-alabak itxaroten ez badaude behintzat, horren lekua betetzeko eskubidea izango lukete eta.
- b.- Zuzenbide zibilerako ez dauka eskubiderik, ahaidetasun agnatizioa baino ez da kontutan hartzen eta, baina zuzenbide pretoriorako bai, nahiz eta senarraren ahaide guztien atzean egon.
- c.- Zuzenbide zibilerako ez, ahaidetasun agnatizioa baino ez baita kontutan hartzen, baina zuzenbide pretoriorako bai, hilaren seme-alabekin batera ipintzen baitu.
- d.- Bai, emaztea delako familiakidea da eta.

11.- Maximoren bilobak:

- a.- Zuzenbide zibilerako oinordekoak dira, aitaren lekua betetzen dutelako, eta Zuzenbide pretoriorako ere bai, lehenengo klasean (*liberienen*).
- b.- Zuzenbide zibilerako ez dira oinordekoak, baina Zuzenbide pretoriorako bai, nahiz eta liberiak baino atzerago egon.
- c.- Bakarrik daukate oinordetzarako eskubidea *decuiusak* espresuki esanez gero.
- d.- Ez dira oinordekoak, ez Zuzenbide zibilerako, ez zuzenbide pretoriorako.

12.- Zuzenbide pretorioaren arabera, oinordetza honela banatzen da:

a.- Bost parte berdinetan zatitzen da: bat alargunarentzat, beste bat seme emantzipatuarentzat, beste bat emantzipaturik ez dagoenarentzat, eta beste biak bi bilobentzat.

b.- Hiru parte berdinetan zatitzen da: bat seme emantzipatuarentzat, beste bat emantzipaturik ez dagoenarentzat, eta, azkenik, bestea, bi bilobentzat.

c.- Lau zati berdinetan zatitzen da: bat seme emantzipatuarentzat, beste bat emantzipaturik ez dagoenarentzat, eta besteak bi bilobentzat.

d.- Bi zatitan zatitzen da: bat seme emantzipatuarentzat eta bestea emantzipaturik ez dagoenarentzat.

BESTE BATZUK-5

Kristo aurreko 40. urtean, Juliok 30 urteko erromatarrak eta *sui iurisak* Korneliarekin ezkondu nahi zuen. Korneliak 22 urte zituen, eta erromatarra eta *sui iuris* zen.

Ezkontza Erroman egin zuten, eta, tradizio erromatarrari jarraituz, *cum*

manu izan zen,. Korneliaren amak, Drusilak, atsekabea hartu zuen, *cum manu* ezkontza ez zuen nahi eta.

Ezkontzarako Juliok etxe ederra erosi zuen Palatinon, baina, zeukan dirua nahikoa ez zenez, 55.000 sestertzioko mailegua eskatu behar izan zuen. Diru kopuru hori lagun batek utzi zion, baina Julioaren osabak, Markok, bermatu behar izan zion dirua itzuliko zela fidantzaren bidez. Hala ere, etxeko lanetan egindako gastuak uste zuen baino handiagoak izan ziren eta beste mailegu bat eskatu behar izan zion bere lehengusu Faustori, eta mailegu hori hipoteka baten bidez bermatu zuen.

Julio hil zen istripu baten ondorioz hogeit hamar urte geroago, eta munduan bizirik utzi zituen Kornelia emaztea, hiru seme (Antonio, Hadriano, Julio) eta alaba bat, (Julia *sine manu* ezkontuta zegoena Krasorekin). Gainera, testamentuan bazen xedapen bat. Horren bidez Mario bilobarentzat uzten zuen, hari asko gustatzen zitzaion zaldi eder bat, eta hala oinordekoek eman behar zioten Mariori zaldi hori, Mario oinordekoen hartzekodun baitzen.

GALDERAK:

1.- Kristo aurreko 40. urteaz hitz egiten dugunean zein garaitan gaude?

- a.- Errepublikan
- b.- Printzealdian
- c.- Monarkian
- d.- Dominatuan

2.- Norekin hasi zen printzealdia?

- a.- Dioklezianorekin
- b.- Augustorekin
- c.- Zesarrekin
- d.- Hadrianorekin

3.- Korneliaren amaren, Drusilaren atsekabea honako honegatik izan daiteke:

- a.- Ezkontza ospatu eta gero, alaba amaren kontrolpean egongo ez delako.
- b.- Ezkontza *cum manu* egin eta gero, Kornelia amaren tutelapean egongo ez delako.
- c.- Ezkontza *cum manu* egon eta gero, Kornelia amaren *potestas*pean egongo ez delako.
- d.- Bere alaba Kornelia, ezkontza *cum manu* egin eta gero, *sui iuris* egotetik Julioaren senarraren *patria potestas*aren menpean egotera pasatzen delako.

4.- Salerosketa-kontratua honako hau da:

- a.- Kontratu erreala

- b.-Adostasunezko kontratua
- c.-Hitzez hitzeko kontratua
- d.- Kontratu formala

5.- Diruaren mailegu-kontratua edo mutua honako hau da:

- a.- Adostasunezko kontratua
- b.- Kontratu erreala
- c.- hitzez hitzeko kontratua
- d.- Kontratu formala

6.- Fidantza honako berme mota hau da:

- a.- Erreala
- b.- Erreala eta pertsonala izan daiteke
- c.- Ezin da inoiz izan berme pertsonala
- d.- Pertsonala

7.- Hipoteka egin eta gero, etxeko jabetza norena da?

- a.- Juliorena da
- b.- Fausto hartzekodunak lortzen du etxearen jabetza.
- c.- Juliorena eta Faustorena izan baino lehen Julioen osabarena izango da.
- d.-Markoren eta Faustoren artean banatuko da etxearen jabetza.

8.- Faustok, maileguaren epea pasatu eta gero Julioek ez ba dio zorra ordaindu, honako *actio* hau izango du:

- a.- *Actio fiktizio* bat
- b.- Betebehar natural bat da
- c.- *Actio certae creditae pecuniaee*.
- d.- Fede oneko *actio* bat .

9.- Faustok interesak eska diezazkioke Juliori?

- a.- Bakarrik horretarako *estipulatio* bat egin badu.
- b.- Julioek Faustori ordaindu beharko dizkio legezko interesak.
- c.- Julioek ez badio ordaindu Faustori ordaindu beharko dizkio interesak kapital printzipala ordaindu behar zuenetik.
- d.- Julioek, gainera, ordaindu behar dizkio lehengusuari berandutzaren interesak.

10.- Nortzuk dira Julioen *heredes suiak*?

- a.- Antonio, Hadriano eta Julio
- b.- Antonio, Hadriano, Julio eta Julia
- c.- Kornelia, Antonio, Hadriano, Julio eta Julia
- d.- Antonio, Hadriano, Julio, Julia eta Kraso

11.- Printzipioz eta arazorik ez badago, zer *delatio* mota egongo da?

- a.- Legezkoa
- b.- Testamentuzkoa
- c.- Legezkoa eta testamentuzkoa
- d.- Beharrezkoa, legezkoa eta testamentuzkoa

12.- Bilobaren aldeko testamentuzko xedapena honako hau da:

- a.- Legatua
- b.- Fideikomisoa
- c.- Kodiziloa
- d.- Testamentua

13.- Bilobaren aldeko testamentuzko xedapena honako legatu hau da:

- a.- *Legatum sinendi modoa*
- b.- *Legatum per damnationema*
- c.- *Legatum per preceptionema*
- d.- *Legatum per vindicationema*

14.- Julioren oinordekoei zaldia eskatzeko Marioren, Julioren bilobaren *actioa*, honako hau da:

- a.- *Actio hereditatis* bat.
- b.- *Actio* pertsonal bat
- c.- *Interdictum quorum bonorum* bat
- d.- *Actio* erreal bat.

BIBLIOGRAFIA

ZUZENBIDE ERROMATAR PRIBATUKO INSTITUZIOAK

ALVAREZ U., *Instituciones de Derecho romano, I, II eta III*, Edersa, Madril, 1973-

1977.

- ARIAS RAMOS, J./ ARIAS BONET J.A., *Derecho Romano I eta II*, 18. arg., Revista de Derecho Privado, Madril, 1986.
- BETANCOURT F., *Derecho romano clásico*, Sevilla, 2001.
- CAMACHO EVANGELISTA, F., *Curso de Derecho Romano*, Granada, 1990.
- CAMACHO EVANGELISTA, F., *Derecho privado y procesal romano*, Granada, 1999.
- D'ORS A., *Derecho privado romano*, Iruñea, 1997.
- DAZA J./ RODRIGUEZ-ENNES L., *Instituciones de Derecho privado romano*, Madril, 2001.
- DIAZ-BAUTISTA A., *Manual de derecho romano I eta II*, DM, Murtzia, 1996.
- FERNANDEZ BARRERO A. / PARICIO J., *Fundamentos de Derecho Privado Romano*, Madril, 2002.
- FUENTESECA P., *Derecho privado romano*, E. Sánchez A. Gráficas, Madril, 1978.
- GARCIA-GARRIDO M.J., *Derecho privado romano: casos, acciones, instituciones* 13. arg., Madril, 2004
- GIMENEZ-CANDELA T., *Derecho Privado Romano*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 1999
- GUARINO A., *Compendio de Derecho Romano Privado*, Escelicer, Cádiz, 1955 (3. arg. Itzul.: F. De Pelsmaeker).
- HERNANDEZ-TEJERO F., *Lecciones de Derecho Romano*, 6. arg., Facultad de Derecho, Madril, 1994.
- IGLESIAS J., *Derecho Romano. Historia e Instituciones*, Madril 2001.
- JÖRS P./ KUNKEL W., *Derecho Privado Romano*, Labor, Bartzelona, 1965 (2. arg., itzul.: L. Prieto Castro)
- KASER M., *Derecho Romano Privado*, 2. arg., Reus, Madril, 1982(5. arg., itzul.: J. Santa Cruz Teijeiro)
- MIQUEL J., *Derecho Privado Romano*, Marcial Pons, Madril, 1992.
- MURGA J.L., *Derecho Romano Clásico II. El proceso*, Zaragoza, 1983.
- ORTEGA CARRILLO DE ALBORNOZ A., *Derecho Privado romano*, Málaga, 2003.
- PANERO R., *Derecho romano*, Valentzia, 2000.
- RASCON C., *Manual de Derecho Romano*, 3. arg., Tecnos, Madril, 2000.
- SAMPER F., *Derecho Romano*, 3. arg., Universidad Internacional SEK, Santiago Txilekoa, 1993
- SCHULZ F., *Derecho Romano Clásico*, Bosch, Bartzelona 1960 (itzul.: J. Santa Cruz Teijeiro)
- TORRENT A., *Manual de Derecho privado romano*, Zaragoza, 2002.
- VALIÑO E., *Instituciones de Derecho Privado Romano*, Facultad de Derecho, Valentzia, 1991.
- VOLTERRA E., *Instituciones de Derecho Privado Romano*, Civitas, Madril, 1986

HIZTEGIAK ETA TESTUAK

- ZENBAIT EGILE, DOMINGO R. (Koord.), *Textos de derecho romano*, Iruñea, 2002.
- GARCIA GARRIDO M.J., *Diccionario de jurisprudencia romana*, Madril, 2000.
- GARCIA GARRIDO M.J., *Responsa.*, 5. arg., Madril, 1997.

GUTIERREZ ALVIZ F., *Diccionario de Derecho romano*, Madrid, 1995.
MIQUEL J., *Quaestiones. Docencia del Derecho romano a través del casuismo romano*, Barcelona, 1985.
ORTEGA CARRILLO DE ALBORNOZ A., *Teoría y práctica jurisprudencial*, Granada, 1988

WEB-GUNE INTERESGARRIAK

Zuzenbide Erromatarren iturriak

www.gmu.edu/departments/fld/CLASSICS/justinian.html : *Corpus iuris civilis*
www.iuscivile.com: Aberdeeneko Unibertsitatea (Escozia), E.Metzger Irak.
www.rome.webzone.ru/ius/library/leges : Leyes República romana
www.ledonline.it/rivistadirittoromano : *Basilicorum libri*.
<http://www-lex.unict.it/cir/cdrom/bia2/bia2.htm>: Iuris Antiqui biblioteka (CD-ROMa)
<http://www.yale.edu/lawwub/avalon/avalon.htm>
<http://romanlaw.cn>
<http://www.uam.es/centros/derecho/privado/romano/fuentes%20del%20Derecho%20Rom...>

Zuzenbide Erromatarra on-line

www.tiscali.it/drol.it
www.derecho-romano.org.
<http://www-derecho.unex.es/biblioteca/derromano.htm> : Extremadurako Unibertsitatez
<http://www.uned.es/der-1-derecho-romano/> : UNED.
<http://web.upmf-grenoble.fr/Haiti/Cours/Ak/left.htm>
<http://members.aol.com/pilgrimjon/LEX/ROME.html>
<http://www.lex.unict.it/cir/default.htm>
www.filodiritto.com/diritto/romano/romano.htm
<http://bcs.fltr.ucl.ac.be/default.htm> : Lovainako Unibertsitate Katolikoa
<http://www.idr.unipi.it/iura-communia> :Zuzenbide Komuna.

Mapak

<http://www.unc.edu/awmc/mapsforstudents.html>
<http://www.euratlas.com/time1.htm>

Historia, testu klasikoak eta arkeologia

<http://www.fordham.edu/hasall/ancient/asbookfull.html> : Internet Ancient History Sourcebook.

<http://www.thelatinlibrary.com/> : The latin library.

<http://www.unine.ch/antic/ressources.html> : Neuchâteleko Unibertsitatea.

<http://www.unav.es/hAntigua/recursos/fliter.html> : UniNafarroako Unibertsitatea.

<http://www.csum.edu/>

www.culturaclasica.com

www.estudiosclasicos.org

www.uah.es/organización/otros/CORPUS *Corpus Inscriptionum Latinarum II*

www.ucm.es/info/archiepi : Hispaniako artxibo epigrafikoa

www.ual.es/asocia/selat/index.htm : Latindar Ikasketen Elkarte.

www.uni-heidelberg.d/institute/sonst/adw/edh/index.html : Epigrafia, Heidelbergeko Unibertsitatea.

www.mgh.de/ Monumenta Germaniae Historica

www.ukans.edu/history/index/europe/ancient_rome/E/Roman/index.html

<http://argenteratum.u-strasbg.fr./basesweb/BAHR.htm>

<http://www.gnomon.ku-eichstaett.de/dreams/index.html>

<http://www.uky.edu/ArtsSciences/Classics/biblio/anrw.html>

<http://www.library.mcgill.ca/cdroms/aeb.htm>

<http://ccat.sas.upenn.edu/jod/wola.html>

<http://www.tlg.uci.edu/tlg/index/recourses.html>

<http://rassegna.unibo.it/index.html>

<http://www.restena.lu/cul/ARANEOLA/ARANEOLA.html>

<http://www.unine.ch/antic/ress.html> : Neuchâteleko Unibertsitatea

<http://userpage.fu-berlin.de/>

IRAKASGAIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDIZKARIAK

ALDIZKARIAK

AHDE	<i>Anuario de Historia del Derecho Español</i> (Madrid).
BIDR	<i>Bulletino dell' Instituto di Diritto Romano</i> (Erroma, Milan).
HZ	<i>Historische Zeitschrift</i> (Munich).
Index	<i>Index</i> (Napoli).
Iura	<i>Iura: Rivista Internazionale di Diritto Romano e Antico</i> (Napoli).

JJP	<i>Journal of Juristic Papyrology</i> (New York, Varsovia).
JRS	<i>Journal of Roman Studies</i> (Londres).
Klio	<i>Klio: Beiträge zur alten Geschichte</i> (Berlin).
Labeo	<i>Labeo</i> (Napoli).
RHDFE	<i>Revue Historique de Droit Français et Etranger</i> (Paris).
RIDA	<i>Revue Internationale des Droits de l'Antiquité</i> (Brusela).
SDHI	<i>Studia et Documenta Historiae et Iuris</i> (Errooma).
ZRG	<i>Zeitschrift für Rechtsgeschichte</i> (Weimar).
ZSS	<i>Zeitschrift der Savigny-Stiftung für Rechtsgeschichte: Romanistische Abteilung</i> (Weimar).

ERANSKINAK

a) Konpilazio Justinianotarraren aurreko iturriak

Collectio librorum iuris antejustiniani, KRÜGER arg., P./ MOMMSEN, T./STUEMUND, G., Berlin, 1878-1923.

Iurisprudentiae antejustinianaereliquae, HUSCHKE arg., E./ SECKEL, E./ KÜBLER, B., Leipzig, 1908-1927.

Fontes iuris Romani antiqui, BRUNS, C.G. arg. /MOMMSEN, T./ GRADENWITZ, O., Tubinga 1909 = Aalen, 1958.

Fontes iuris Romani antejustiniani, RICCOBONO, S. arg. / BAVIERA, G./ FERRINI, C. / FURLANI, J. / ARANGIO-RUIZ, V., 3 liburuki : 1.-*Leges* (.RICCOBONO arg., Florentzia, 1968), 2.-*Auctores* (BAVIERA-FURLANI arg., 1964). 3.- *Negotia* (ARANGIO RUIZ arg., eranskiduna), Florentzia, 1968.

Textes de droit romain, arg. GIRARD, P.F./ SENN, F., Paris, 1937.

Les lois des Romains, GIRARD, P.F. arg. / SENN, F., 1 liburuki, Paris, 1967 eta 3. liburuki , Napoli, 1977 (*Textes de droit romain en argitarapen handituta*, srg. GIRARD, P.F./ SENN, F., Paris, 1937.

RUIZ CASTELLANOS, A., *Ley de las XII Tablas* arg. Elebiduna, Madril, 1992.

RASCÓN, C./ GARCÍA GONZÁLEZ, J.M., *Ley de las XII Tablas* arg. elebiduna, Madril, 1993.

b) GAIO

Gai Institutionum codicis Veronensis Apographum, STUEMUND, G. arg., Leipzig, 1874.

Gai Institutionum commentarii quatuor, KÜBLER, B. arg., Leipzig, 1939.

Gai Institutionum commentarii quatuor, DAVID, M. arg./ NELSON, H.L.W., Leiden, 1954.

GAYO, *Instituciones*, D'ORS, A. (arg. eta itzul.), Madril, 1943.

Instituciones de Gayo, Zenbait egile, HERNÁNDEZ TEJERO (koor.), Madril, 1985.

Gaii institutionum-La Instituta de Gayo, Gaioren Erakundeen gaztelarazko

lehenengo itzulpenaren faksimilea, Madrilen plazaratuta 1845ean ,elebiduna, Eusko Legebiltzarra-Arartekoa, 1992.

c) Justiniano baino lehenagoko juristak

BREMER, *Iurisprudentiae Antehadrianae quae supersunt*, 3 liburuki, Leipzig, 1896-1901, Leipzig, 1985.

KUNKEL, *Herkunft und soziale Stellung der römischen Juristen*, Munich, 1967.

LENEL, O., *Palingenesia Iuris Civilis*, 2 liburuki, Leipzig, 1927=Graz, 2000.

d) Leges rogatae Errepublikatik Printzegora

ROTONDI, G., *Leges rogatae populi Romani*, Milan, 1912 = Hildesheim, 1962.

e) Jurista klasikoek aipatutako konstituzio inperialak

GUALANDI, G., *Legislazione imperiale e giurisprudenza*, Milan, 1963.

f) Pretorearen Ediktua

Das Edictum Perpetum. Ein Versuch zu seiner Wiederherstellung, LENEL, O., Leipzig, 1927 = Aalen, 1985.

g) Prozesu pribatua

MANTOVANI, *Le formule del processo privato romano*, Como, 1992.

h) Kode Teodosiotarra

Codex Theodosianus, MOMMSEN, T. arg. / MEYER, P.M., Berlin, 1962.

Código Teodosiano, (itzul.. DIAZ BIALET, A.) Córdoba (Argentina), 1964

i) Konpilazio Justinianotarra

Corpus Iuris Civilis, MOMMSEN, T. arg. / KRÜGER, P./ SCHOELL, R./ KROLL, G., Berlin, 1928-1929=1954.

Corpus Iuris Civilis, 1 liburukia, *Digesta*, MOMMSEN, T. arg. / KRÜGER, P., Berlin, 1954.

Corpus Iuris Civilis, 1 liburukia, *Institutiones*, KRÜGER, P. arg., Berlin, 1954.

Digesta Iustiniani Augusti, MOMMSEN, T. arg., Berlin, 1877-1870.

Digesta Iustiniani Augusti, BONFANTE, P. arg. / FADDA, C./ FERRINI, C./RICCOBONO, S./SCIALOJA, V., Milan, 1908-1931=1960.

El Digesto de Justiniano, itzul.: D'ORS, A./HERNÁNDEZ TEIJEIRO,

F./FUENTESECA, P./GARCÍA GARRIDO, J.M./BURILLO, J., Iruñea, 1968-1975.
Codex Iustinianus, KRÜGER, P. Arg. , Berlín, 1877.

j) Justiniano odorengo iturri bizantziarrak

Basilicorum libri LX, SCHELTEMA, H.J. arg. / VAN DEL WAL, N./HOLWERDA, D., Groningen, 1953-1974. (Bi sail: Basílicos eta Escolios).
Ius Graecorum, ZEPOS, J/ ZEPOS, P., Atenas, 1931 = Aalen, 1969.

k) Lege Germaniarrak

1.- En *Fontes iuris Romani anteiustiniani: Teodorikoren Ediktua, Lex Romana Burgundionum*.

2.-Edizio bereziak

- *Lex Romana Visigothorum*, HAENEL, G. arg., Leipzig, 1849 = Aalen, 1962.

- *Leges Visigothorum*, ZEUMER, K. arg., *colección Monumenta Germaniae Historia*, Leges 1/1, Hannover-Leipzig, 1902.

- *El Código de Eurico*, D'ORS, A. arg., Erroma-Madril, 1960.

l) Beste batzuk

Fragmenta Vaticana, arg. elebiduna, CASTRESANA HERRERA, A., Madril, 1988.
ISIDORO DE SEVILLA, *Etimologías I*, arg.elebiduna, OROZ eta beste batzuk, Madril, 1962.